

Euskal Autonomia Erkidegoan Batasunaren Intereseko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Plana, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek sinatua



▶ Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
▶



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Nekazaritza Saila
Departamento de Agricultura



Gipuzkoako Foru Aldundia
Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentua
Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko azaroaren 30eko 2009/147/EE Direktibak, basoko hegaztien kontserbazioari buruzkoak, Kontseiluaren 1979ko apirilaren 2ko 79/409/EEE Direktiba indargabetzeko denak, xedatzen du Estatu kideek neurriak hartu behar dituztela hegazti-populazioak atxikitzeko; haien habitatak eta habitaten aniztasuna babesteko, atxikitzeko eta lehengoratzeko; eta habitaten azalera nahikoa dela ziurtatzeko. Gainera, I. eranskinak aipatzen dituen espezieak babesteko araubide berezi bat ezartzen du, hala nola ugatza (*Gypaetus barbatus*), sai zuria (*Neophron percnopterus*) eta sai arrea (*Gyps fulvus*) babesteko: haien habitatak babesteko kontserbazio-neurri bereziak xedatzen ditu, banaketa-eremuan desagertu ez eta ugaltu egiten direla ziurtatzeko.

Abenduaren 13ko 42/2007 Legeko 53. eta 55. artikuluek Babes Araubide Bereziaren Pean dauden Basoko Espezieen Oinarrizko Zerrenda sortzen dute. Zerrendak barnean hartzen ditu Kudeaketa Planaren barruko hiru espezieak, eta barnean hartzen du Arriskuan dauden Espezieen Espainiako Katalogoa ere. Katalogoarekin bat (otsailaren 4ko 139/2011 Errege Dekretuak, Babes Araubide Bereziaren Pean dauden Basoko Espezieen Oinarrizko Zerrenda eta Arriskuan dauden Espezieen Espainiako Katalogoa garatzeko denak, xedatzen duenarekin bat), ugatza "galtzeko arriskuan" dago, eta sai zuria, berriz, "kaltebera" da. Hori dela eta, espezie horiek bizi diren autonomia-erkidegoek haien populazioak lehengoratzeko planak prestatu behar dituzte, desagertzen ez direla ziurtatzeko. Testuinguru horretan, 139/2011 Errege Dekretuko 11.3. artikulua xedatzen duenez, "baldin eta arriskuan dauden espezieen eremu geografikoak, habitatak, eskakizun ekologikoak edo kontserbazio-arazoak antzekoak badira, espezie anitzentzako estrategiak presta daitezke eta, horrenbestez, lehengoratzeko eta kontserbazio-planak espezie anitzentzat izan daitezke".

Aipatutako hiru espezieak eta haien habitatak Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko legediaren bidez oro har babesteaz gain, Zerrendaren barruan daudenez gero, beharrezkoa da aldian-aldian haien kontserbazio-egoera aztertzea. Horretarako, beharrezkoa da informazioa izatea haien alderdi biologiko eta ekologiko nagusiei buruz, oinarri bat izateko egoera diagnostikatzeko eta kontserbazio-egoera ona edo txarra den ebaluatzeko eta, ebaluazioaren arabera, Zerrendan eta Espainiako Katalogoan aldaketak egiteko.

Ekainaren 30eko 16/1994 Legeak, Euskal Herriko natura babestekoak, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda sortzen du, babes-neurri bereziak behar dituzten espezie, subespezie eta populazioak biltzeko.

Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 9ko 167/1996 Dekretuak, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda arautzeko denak, eta 2011ko urtarrilaren 10eko Aginduak, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda aldatzen eta testu bakarra onartzen duenak, "galtzeko arriskuan" dauden espezieen kategorian sartzen dute ugatza, espezie "kalteberen" kategorian sai zuria, eta "interes bereziko" espezieen kategorian sai arrea. Ekainaren 30eko 16/1994 Legeko 50.1. artikulua xedatzen dituen babes-neurriak aplikatu behar izateaz gain, aipatutako espezieak katalogatzeak berekin dakar kudeaketa-plan bat prestatu behar izatea, espezieen gaineko arriskuak desagerrarazteko beharrezko arau eta neurriak ezartzeko eta haien populazioak lehengoratzeko, babestea eta egokiro kudeatzea bultzatzeko, baita haien habitatak babestea eta atxikitzea bultzatzeko, Legeko 50.3. artikulua xedatzen duenarekin bat.

Bestalde, 2000ko uztailaren 4an egindako bilkuran, Natura Babesteko Espainiako Batzordeak “Espainian ugatza babesteko estrategia” onetsi zuen, espeziea babesteko lehentasunezko jarduketa-ildoak ezartzeko funtsean: batetik, autonomia-erkidegoek azken urteotan espeziearen alde etengabe egindako jarduketak berresten ditu eta, bestetik, jarduketa-plan jakinik ez duten autonomia-erkidegoek neurriak hartzeko edo beren ekintza-planak egiteko lehentasunak ezartzeko oinarritzko dokumentu bat da.

Gainera, aurreikusitako plangintza bat dator abenduaren 13ko 42/2007 Legeak, natura-ondareari eta biodibertsitateari buruzkoak, 56.1. artikuluan xedatzen duenarekin eta, hortaz, Estatuko oinarritzko legediak aipatzen dituen lehengoratzeko-planen Euskadiko baliokidea da.

Azaroaren 14ko 1632/2011 Errege Dekretua onartuta, basa-faunako espezie jakin batzuk giza kontsumorako erabiltzen ez diren animalia-azpiproduktuekin elikatzeko arautzen duena, hegazti harrapari nekrofagoak (bereziki, Batasunaren interesekoak) giza kontsumorako erabiltzen ez diren animalia-azpiproduktuekin elikatzeko oinarritzko esparru berria eratu da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko urriaren 21eko 1069/2009 (EE) Erregelamendua, giza kontsumorako erabiltzen ez diren animalia-azpiproduktuei eta produktu eratorriei aplikatu beharreko osasun-arloko arauak ezartzeko eta 1774/2002 (EE) Erregelamendua indargabetzeko dena, aplikatze aldera, eta animalia basatiak 2. eta 3. kategorietako materialarekin elikatzeko eta 1. kategoriako material jakin batzuk erabiltzeko baimena eman zaio organo eskudunari. Era berean, Batasunaren intereseko hegazti harrapariak elikatzeko babesguneak izendatu beharra eta horretarako baldintzak ezarri dira, baita hegaztiak elikatzeko guneak instalatzeko eta eskabidea aurkezteko baldintzak eta beste gai batzuk ere.

Batasunaren intereseko hegazti harrapariak elikatzeko janleku eta babesguneak baimentzeko eta erregistratzeko araubidea bat dator Batasuneko antolamendu juridikoak Europar Batasuneko barne-merkatuan zerbitzuak emateko eta ezartzeko askatasunaren inguruan ezartzen dituen eskakizunekin. Izan ere, Batasuneko antolamendu juridikoak interes orokorreko premiazko arrazoitzat du animalien osasuna, eta, hortaz, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Direktibak, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoak, 9.1.b) artikuluan xedatzen duenarekin bat, baimen-araubide berezia ezar daiteke.

Basoko hegaztiak babesteko betebeharra da Kudeaketa Plana onartzeko oinarria, eta hauek ezartzen dute: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko azaroaren 30eko 2009/147/EE Direktibak, basoko hegaztiak babesteari buruzkoak; 92/43/EEE Direktibak, habitat naturalak eta basoko fauna eta flora babesteari buruzkoak; abenduaren 13ko 42/2007 Legeak, natura-ondareari eta biodibertsitateari buruzkoak; eta ekainaren 30eko 16//1994 Legeak, Euskal Herriko natura babestekoak. Babes-araubide orokor bat ezartzen dute, basoko hegazti-espezieak babestea eta espezie jakin batzuk babesteko araubide berezi bat ezartzea ziurtatzeko, otsailaren 4ko 139/2011 Errege Dekretuak, Babes Araubide Bereziaren Pean dauden Basoko Espezieen Oinarritzko Zerrenda eta Arriskuan dauden Espezieen Espainiako Katalogoa garatzeko denak, eta uztailaren 9ko 167/1996 Dekretuak, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda arautzeko denak, xedatzen dutenarekin bat.

Administrazio eskudunetako estamentuak koordinatuta, Eusko Jaurlaritzako eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako foru-aldundietako teknikariek lantalde bat eratu zuten, eta lantaldeak plan bat prestatu zuen, espeziean adituekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean Batasunaren intereseko hegazti harrapari nekrofagoak kudeatzeko: ugatza (*Gypaetus barbatus*), sai zuria (*Neophron pernocterus*) eta sai arrea (*Gyps fulvus*). Gainera, kontsulta egin zaie animalien osasun-gaien gaineko eskumena eta giza kontsumorako erabiltzen ez diren animalia-azpiproduktuei buruzko araudia aplikatzeko eskumena duten administrazioei.

Eusko Jaurlaritzak eta hiru lurralde historikoek Kudeaketa Plana idatzi dute guztien artean kudeaketa-plan bat prestatzeko betebeharra zutelako 16/1994 Legeak 50.3. artikuluan eta uztailaren 9ko 167/1996 Dekretuak, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda arautzeko denak, 8.2. artikuluan xedatzen dutenarekin bat.

Behin Kudeaketa Plana idatzi eta gero, 167/1996 Dekretuko 8.2. artikulua aplikatze aldera, hiru lurralde historikoetako foru-organismoek onartu egingo dute, aipatutako espezieen berezko banaketa-eremuetarako eta espezieen populazioak lehengoratzeko bultzatzen den eremuetarako.

Xedapenak

1. artikulua. Baterako Kudeaketa Planaren onarpena

1. Euskal Autonomia Erkidegoan Batasunaren Intereseko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Plana onartu da.

2. Baterako Kudeaketa Planak hegazti hauek hartzen ditu barnean berariaz: ugatza (*Gypaetus barbatus*), sai zuria (*Neophron pernocterus*) eta sai arrea (*Gyps fulvus*) —I. eranskinak deskribatzen ditu—. Planaren funtsezko helburua da espezie horien populazioen dinamikari kalte egin dioten edo egiten dioten faktoreak desagerraraztea, espezieak arriskuan baitaude, haien populazioak bideragarriak izan daitezen epe luzean edo, gutxienez, beren habitat izan daitezkeenak kolonizatzeko modukoak izan daitezen.

2. artikulua. Baterako Kudeaketa Planaren helburuak

- a) Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen interes bereziko eremuak (bereziki, Baterako Kudeaketa Planak ugatzarentzat eta sai zuriarentzat ezartzen dituen eremu kritikoak) modu eraginkorrean babestu daitezen ziurtatzea, espezieek erregulartasunez erabil ditzaten beren bizi-zikloan.
- b) Helduen, helduaroaren atarian daudenen eta gazteen populazioak hiltzeko berezkoak ez beste arrazoiak gutxitzea eta, ahal dela, desagerraraztea.
- c) Gizakiak traba gutxiago egitea espezieak ugaltzeko, elika eta pausa daitezkeen tokietan.
- d) Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak elikatzekeko babesguneetan eskuragarri dagoen janari kantitatea erregulatzea.

- e) Hegaztien eta abeltzaintza estentsiboaren arteko harremana eta haren onura eta gorabeherak aztertzea.
- f) Informazio fidagarri, eguneratu eta etengabea izatea aipatutako hiru espezieen Euskadiko populazioen bilakaerari eta arazoei buruz.
- g) Herritarrak eta administrazioak espezie hauen egoeraren gainean informatzea eta sentsibilizatzea.
- h) Erakundeak espezie hauek babesteko eta kudeatzeko koordina daitezen bultzatzea.

3. artikulua. Indarraldia eta aplikazioa

1. Baterako Kudeaketa Plana bere osotasunean eta muga gabe aplikatuko da, indarrean sartzen denetik ugatza, sai zuria eta sai arrea Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendatik atera daitezkeen arte [167/1996 Dekretua, uztailaren 9koa, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda arautzeko dena].

2. Funtsezko aldaketarik badago hiru espezieen eta haien habitaten kontserbazio-egoeran edo hari buruzko informazioan, Eusko Jaurlaritzako sail eskudunak, foru-erakundeetako sail eskudunekin koordinatuta, Baterako Kudeaketa Planaren edukia berrikus dezake, eta, egoki baderitzo, jarduera-eremua eta helburu orokorrak, arauak eta planaren helburua lortzeko neurriak berriz zehaztu.

3. Betiere, Baterako Kudeaketa Plana bost urtean behin ebaluatuko da eta, egoki irizten bazaio, berrikusi ere egingo da. Nolanahi ere, Plana mugagabea izango da berdin-berdin.

4. Foru-erakundeetako sail eskudunei dagokie beren lurralde historikoan Euskal Autonomia Erkidegoan Batasunaren Intereseko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Planaren aurretiko eta ondoriozko jarduketak garatzea eta betearaztea. Plana garatzeko, jarduketa-programak gauzatuko dituzte erakundeok, eta programek denboran eta espazioan kokatuko dituzte haien xedapenak betetzeko neurriak.

4. artikulua. Definizioak

Hona Baterako Kudeaketa Planaren helburuetarako definizioak:

- a) Ugatzaren eremu kritikoak dira espeziea ez desagertzeko eta lehengoratzeko berebiziko garrantzia duten eremuak (ugatzak habia egiten duen tokiak, janari gehigarria emateko toki edo janlekuak, hezurak apurtzeko tokiak eta ugatzen lurraldeetako ohiko pausalekuak). Kudeaketa Plana aplikatzeko garatzen diren jarduketa-programek zehaztuko dituzte.
- b) Sai zuriaren eremu kritikoak dira espeziea ez desagertzeko eta lehengoratzeko berebiziko garrantzia duten eremuak (sai zuriak habia egiten duen tokiak, ugaltzeko saioak egin dituela jakina den tokiak barne, eta etzaleku komunalak). Kudeaketa Plana aplikatzeko garatzen diren jarduketa-programek zehaztuko dituzte.
- c) Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen interes bereziko eremuak dira hegaztion ugaritasuna eta dibertsitatea haien populazioak epe luzean atxikitzeko funtsezkoak direla jotzen den eremuak. Mapek mugatzen dituzte.
- d) Umatze-koloniak dira sai arreen bikote ugaltzaileen kokalekuak. Espezie bereko aleak ugaltzeko beste lekuetatik 1 km baino gehiagora daude.

- e) Janari gehigarria emateko toki edo janlekuak dira Batasunaren intereseko animalia-espezieak elikatzeke berariaz egokitutako tokiak.
- f) Kontserbazio-egoera da espeziean eragina duten eta epe luzean populazioen banaketan eta tamainan eragina izan dezaketen faktoreen multzoa. Kontserbazio-egoera ona da espezieen populazioen dinamikak zera adierazten badu: espezieak berebiziko garrantzia du artean bere habitatetan, eta epe luzean ere izan dezake; berezko banaketa-eremua ez da murrizten ari, eta ez dago aurreikus daitekeen etorkizunean murrizteko arriskurik; eta habitataren azalera nahikoa da populazioak epe luzean atxikitzeke, eta pentsatzekoa da etorkizunean ere nahikoa izango dela.
- g) Espezie baten habitata da espeziea bere ziklo biologikoko faseren batean bizi den ingurunea. Faktore abiotiko eta faktore biotiko espezifikoek baldintzatzen dute.
- h) Espezie baten aldi kritikoa da edozein giza jarduera espeziearentzako bereziki kaltegarria izan daitekeen denboraldia.
- i) Batasunaren intereseko espezie nekrofagoak elikatzeke babesguneak dira Baterako Kudeaketa Planak mugatzen dituenak 1632/2011 Errege Dekretuak, basa-faunako espezie jakin batzuk giza kontsumorako erabiltzen ez diren animalia-azpiproduktuekin elikatzea arautzen duenak, ezartzen dituen irizpideekin bat. Babesguneok eremu babestuen barruan edo kanpoan egon daitezke.

5. artikulua. Aplikazio-eremua

1. Baterako Kudeaketa Planeko xedapenak Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan aplikatuko dira.
2. Aplikazio-eremuaren barruan, hauek hartuko dira Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen interes bereziko eremutzat, eta hauetako habitata babesteko eta hobetzeko jarduketei eta zaintza- eta kontrol-jarduketei emango zaie lehentasuna —Baterako Kudeaketa Planaren II. eranskinak dakar mapa—:

Araban

Garobel mendilerroa (hegaztiak bereziki babesteko ES000244 eremuaren Arabako aldea).
 Arcena mendilerroa (Valderejo eta Sobrón) —ES000245 HBBEari dagokio, eta Batasunaren intereseko ES2110001 eta ES2110002 lekuak hartzen ditu barnean—.
 Arkamo —ES2110004 BILari dagokio—.
 Toloño mendilerroa —ES000246 HBBEaren barnean dago, eta ES2110018 BILari dagokio—.
 Urkiola (ES2130009 BILaren Arabako aldea).
 Izki —ES2110019 HBBEari eta ES2110019 BILari dagokie—.
 Lokiz eta Kodesko mendilerroak —ES000246 HBBEaren barnean daude—.
 Entzia mendilerroa —ES2110022 BILari dagokio—.
 Aizkorri-Aratz mendilerroa (ES2120002 BILaren Arabako aldea).
 Gorbeia (ES2110009 BILaren Arabako aldea).

Bizkaian

Garobel mendilerroa (ES000244 HBBEaren Bizkaiko aldea).
 Urkiola (ES2130009 BILaren Bizkaiko aldea).
 Armañón —ES2130001 BILari dagokio—.

Gorbeia (ES2110009 BILaren Bizkaiko aldea).
Ordunte —2130002 BILari dagokio—.
Meatzaldea.
(Udalatx mendiaren Bizkaiko aldea).

Gipuzkoan

Aralar —ES2120011 BILari dagokio—.
Aizkorri-Aratz (ES2120002 BILaren Gipuzkoako aldea).
Aiako Harria —ES2120016 BILari dagokio—.
Hernio-Gazume —ES2120008 BILari dagokio—.
Udalatx mendiaren Gipuzkoako aldea.
Orunbe-Uli (Uli mendigunea).
Leizaran Ibaia biotopo babestuaren babespeko eremu periferikoa (Bertxin).
Altzolarats.
Urkizu.
Arno —ES2120001 BILari dagokio—.
Jaizkibel —ES2120017 BILari dagokio—.

3. Etorkizunean baliabide naturalak antolatzeko egiten diren planek edo/eta natura-gune babestuak erabiltzeko eta kudeatzeko egiten diren gida planek, hegaztiak bereziki babesteko eremuak eta kontserbazio bereziko eremuak izendatzen direnean haiek babesteko neurriak hartzeko prestatzen diren dokumentuek eta lurraldea eta sektorea planifikatzeko eta antolatzeko gainerako tresna guztiek bete egingo dituzte Baterako Kudeaketa Planak Batasunaren intereseko espezie nekrofagoen interes bereziko eremuetan, ugatzaren eta sai zuriaren eremu kritikoetan eta Batasunaren intereseko espezie nekrofagoak elikatzeko babesguneetan erabilerak eta jarduerak baimentzeko ezartzen dituen arauak. Planek kontuan hartuko dute arriskuan dauden espezieak daudela beren lurralde-eremuan: ugatza, "galtzeko arriskuan" baitago; sai zuria, "kaltebera" baita; eta sai arrea, "interes berezikoa" baita. Ildo horretan, lurraldea eremutan banatzen eta muga orokor eta espezifikoa ezartzen dituztenean, kontuan hartuko dituzte Baterako Kudeaketa Planak espezie horiek babesteko, haien populazioak lehengoratzeko eta haien habitatak babesteko eta lehengoratzeko finkatzen dituen helburu, arau eta neurriak.

4. Lurralde-eremuak barnean hartzen baditu Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen interes bereziko eremuak edo ugatzaren edo/eta sai zuriaren eremu kritikoak, ekainaren 30eko 16/1994 Legeak, Euskal Herriko natura babestekoak, 54. artikuluan xedatzen duena betetze aldera, lurraldea eta hirigintza planifikatzeko tresnek ugatzaren eta sai zuriaren habitatak babestea, atxikitzea eta lehengoratzea ziurtatuko dute, eta, beharrezkoa bada, erabilerak arautuko edo murriztuko dituzte —horretarako, arrazoiak eman behar dituzte—.

6. artikulua. Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa

1. Baldin eta plan, programa edo proiektu batek zuzeneko edo zeharkako eragina izan badezake Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen interes bereziko eremuetan edo ugatzaren edo/eta sai zuriaren eremu kritikoetan eta, bakarka edo beste batzuekin batera, eragin nabarmena izan badezake espezie horien babesean eta haiek lehengoratzeko aukeretan, lurralde historiko bakoitzean Baterako Kudeaketa Plana aplikatzeko eskumena

duen sailak txosten bat egingo du nahitaez, ebaluatzeko nolako eragina izango duen plan, programa edo proiektuak Kudeaketa Planaren helburuetan. Txostena loteslea izango da.

2. Besteak beste, ebaluazioak hauek hartuko ditu kontuan: plan, programa edo proiektuak zer-nolako eragina izango duen landarediaren eta habitataren aldaketan; zer-nolako ondorioak izango dituen ingurune harkaiztarretan; espeziean eragin nabarmena izan dezaketen elementu eta egitura artifizialak (adibidez, aireko azpiegiturak) sartzeak zer-nolako ondorioak izango dituen; giza jarduerak trabarik egingo duten; eta errazagoa izango den umatzeko, etzateko, egoteko eta elikatze lurralde eta eremu nagusietara iristea.

3. Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen interes bereziko eremuetan eta ugatzaren edo/eta sai zuriaren eremu kritikoetan baimenak eta kontzesioak emateko eta ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzeko prozeduren esparruan, txosten eta azterlanak egingo dira, aztertze, diagnostikatzeko eta ebaluatzeko zer-nolako ondorioak izan ditzaketen jarduketa eta proiektuek espezieetan eta haien populazioen dinamikan.

4. Plan, programa eta proiektuek Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen interes bereziko eremuetako eta ugatzaren edo/eta sai zuriaren eremu kritikoetako ingurumenaren gainean duten eragina aztertze prozeduren esparruan egiten diren txosten tekniko eta azterlanek kontuan hartuko dituzte espezieen behar ekologikoak eta haien habitat izan daitezkeenak atxiki beharra:

- a) Larre menditarrak atxikitzea edo handitzea zainduko dute, habitateko landarediaren eta baldintzen egitura ez aldatzea, eta ingurune harkaiztarrak ez hondatzea.
- b) Ahal dela, ez dute ekarriko aireko azpiegiturarik instalatzea.
- c) Gizakiak traba ez egiteko eta espezieak kokatzen diren eremuetara ez sartzeko neurriak hartuko dituzte.

7. artikulua. Debeku orokorrak

Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan debekatuta dago oro har ugatzarekin, sai zuriarekin eta sai arrearekin zera egitea:

- a) Espezieak (eta haien txita eta arrautzak) akabatzeko edo harrapatze eta espezieei jazartzeko edo traba egiteko baimendu gabeko edozein jarduketa egitea eta haien habitata suntsitzea eta aldatzea; bereziki, habiak, umatze-lurraldeak, pausalekuak eta janlekuak.
- b) Ale bizi edo hilak edukitzea, naturalizatzea, garraiatzea, saltzea, erakustea, inportatzea eta esportatzea eta basoko helduak eta haien txitak elikatzea, araudiak dioenean izan ezik.
- c) Postu finkoak ezartzea behatzeko eta irudia edo soinua erregistratzeko, baldin eta postuak aleetatik 250 m baino gutxiagora eta ohiko pausalekueetatik, hezurak apurtzeko tokietatik, janlekuetatik eta espezieek habia egin dezaketen tokietatik 500 m baino gutxiagora badaude, salbu eta lurralde historiko bakoitzean eskumena duen sailak baimena ematen badu berariaz.

8. artikulua. Kudeaketa-arau orokorrak

Espezieen kudeaketaren helburua da Batasunaren intereseko hegazti-espezie nekrofagoen populazioak denboran atxikitzea eta populazioak osasuntsu egotea alde genetiko eta demografikotik, eta hauek izango ditu helburu:

- a) Ugatzaren eta sai zuriaren populazio ugaltzaile egonkorrak Euskal Autonomia Erkidegoan berez koka daitezen bultzatzea.
- b) Ugatza mendebalderantz eta Kantauriar mendikaterantz heda dadin bultzatzea, Kantauriar mendikatea - Pirinioak - Alpeak korridore ekologikoa eratzekeko estrategiaren esparruan — Naturaren Munduko Batasunak eta Europako Kontseiluak babesten dute estrategia—.
- c) Ugatzak eta sai zuriak erabil ditzaketen eremuetako habitataren baldintzak lehengoratzeko eta hobetzea, populazio mugikorra erakartzeko eta habitata birkolonizatzeko.
- d) Espezieek okupatutako lurak ez galtzea, bikote ugaltzaileen kopurua handitzea eta sai zuriaren ugalketaren arrakasta-tasa handitzea, batetik, eta sai arrearen populazioen kontserbazio-egoera onari eustea, bestetik.
- e) Abeltzaintza estentsiboa eta fauna-komunitateen aberastasuna sustatzea; bereziki, basoko unglatuen populazioena.
- f) Kudeaketari aplikatutako ikerketa-ildoak eta populazioei buruzko azterlanak sustatzea, espezieak babesteko estrategiak ebaluatzeke eta, beharrezkoa bada, berriz zehazteko.
- g) Abeltzaintzaren eta Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen arteko harremana aztertzea, batetik, eta harreman horren ondoriozko arazoak ikuskatzeko eta, beharrezkoa bada, konpentsazio-neurriak hartzeko sistema bat ezartzea eta kalteei aurrea hartzeko neurriak sustatzea, bestetik.
- h) Batasunaren intereseko hiru hegazti-espezie nekrofagoen kudeaketan lurraldeen arteko koordinazioa sustatzea; bereziki, autonomia-erkidego mugakideekiko, Pirinioetako autonomia-erkidegoekiko, Frantziako Pirinioetako eskualdeekiko eta Andorrarekiko koordinazioa.
- i) Lurralde bakoitzean espezieei buruz dagoen informazioa eta sortzen dena biltzea eta eguneratzea.

2. Baterako Kudeaketa Planak finkatzen dituen neurriak modu eraginkorrean garatzeko eta haren helburuak lortzeko, beharrezkoa da aplikazio-eremuan langile gaitu nahikoak izatea, espezieak zaintzen eta babesten direla eta haien jarraipena egiten dela ziurtatzeko, baita beharrezko bitartekoak izatea ere.

9. artikulua. Espezieen aldi kritikoak

Espezie bakoitzaren fenologia kontuan izanik, hona aldi kritikoak:

1. Ugatzaren aldi kritikoa azaroaren 1etik maiatzaren 15era bitartekoa da. Ugatza sakabanatu eta lurralde berri batean kokatu, negua pasatu eta ugaltu egiten den garaia dagokio. Agindutakoari kalte egin gabe, arreta berezia jarriko da ale bakoitzaren fenologian, aldi kritikoa zehazkiago finkatzeko. Baldin eta espeziea ugaltzen saiatzen ari dela ikusten bada, aldi kritikoak uztailearen 31ra arte iraungo du.

2. Sai zuriaren aldi kritikoa martxoaren 1etik irailaren 1era bitartekoa da. Sai zuria lurraldean kokatu eta ugaltu egiten den garaia dagokio. Agindutakoari kalte egin gabe, arreta berezia jarriko da bikote bakoitzaren fenologian, aldi kritikoa zehazkiago finkatzeko.

3. Sai arrearen aldi kritikoa urtarilaren 1etik abuztuaren 15era bitartekoa da. Sai arrea umatze-kolonietan kokatu eta ugaltu egiten den garaiari dagokio. Agindutakoari kalte egin gabe, arreta berezia jarriko da bikote bakoitzaren fenologian, aldi kritikoa zehazkiago finkatzeko.

10. artikulua. Babes-neurri orokorrak Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen interes bereziko eremuetan eta ugatzaren eta sai zuriaren eremu kritikoetan

1. Ahal dela, Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen interes bereziko eremu eta ugatzaren eta sai zuriaren eremu kritiko guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko natura-gune babestuen sarean sartuko dira, kudeaketa hobetzeko, errazago erabakitzeko eta finantzaketa-aukerak hobetzeko.

2. Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen interes bereziko eremuetan aztertuko da zer leku okupa ditzaketen ugatzak eta sai zuriak eta zer faktore zuzendu edo osatu behar diren. Era berean, urteko jarduketaren programa bat prestatuko da, eremuak espezieen eskakizunetara egokitzeko eta haien baldintza ekologikoak hobetzeko. Ugatzari dagokionez, gainera, aleak berariazko bazkategien bidez "kokarazteko" jarduketei eutsiko zaie, eta aztertuko da ea komeni den neurri gehiago hartzea.

3. Beharra dagoenean bakarrik gauzatu daitezke ibilgailuentzako bide berriak eraikitze eta lehendik daudenak egokitzeko proiektuak Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen interes bereziko eremuetan, behar bezala arrazoituta betiere. Lurralde historiko bakoitzean Baterako Kudeaketa Plana aplikatzeko eskumena duten organoek txosten bat egingo dute nahitaez bideen ibilbideari, ezaugarriei eta erabilerari buruz, habitata babestea eta eremuak lasai egotea ziurtatzeko ingurumen-neurriak hartzeko. Txostena loteslea izango da.

4. Bereziki, ahal dela, ez da eraikiko ibilgailuentzako biderik, baldin eta ugatza edo/eta sai zuria beren eremu kritikoaren barruan egon ohi diren lekuetatik hurbil badago edo haietara iristea errazten badu.

5. Lurralde historiko bakoitzean Baterako Kudeaketa Plana aplikatzeko eskumena duten organoek txosten bat egingo dute nahitaez Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen interes bereziko eremuetan landare-estalkia edo lurzoruen erabilerak aldatzeko eta lursailak metatzeko basogintza-proiektuei buruz. Txostena loteslea izango da.

6. Aleren bat kokatzen bada, ugatzaren edo/eta sai zuriaren eremu kritikoaren 1.000 m-ko inguruan edo sai arrearen umatze-kolonien 500 m-ko inguruan egin beharreko lan eta jarduerak espezie bakoitzaren aldi kritikotik kanpo egingo dira, ezinbestean izan ezik. Ezinbestea, nolahi ere, behar bezala arrazoituta behar da, eta Baterako Kudeaketa Plana aplikatzeko eskumena duen foru-administrazioak baimena eman behar du.

7. Ugatzaren eta sai zuriaren eremu kritikoetatik 250 m baino gutxiagora debekatuta dago oro har zera egitea:

a) Azpiegitura eta eraikuntzak instalatzea.

b) Lurra mugitzea, agregakinak ateratzea eta hondakinak isurtzea edo biltegitratzea.

- c) Nekazaritzako erabilera aldatzea eta habitat naturala edo landare-estalkia eraldatzea, bertako landaredia lehengoratzeko izan ezik. Bertako landaredia lehengoratzeko jarduketak, nolana ere, espezieen aldi kritikoetatik kanpo egin behar dira.
- d) Espezie bakoitzaren aldi kritikotik kanpo ehizatzea.

Baterako Kudeaketa Plana aplikatzeko eskumena duen administrazioak baimena ematen badu, debekuak indargabetu egin daitezke, behar bezala arrazoituta betiere.

11. artikulua. Pozoiak eragindako heriotzak gutxitzeko neurriak

1. Pozoiak erabiltzea debekatzeari buruzko legedia zorrozki betetzea ziurtatzeko eta gai toxikoen erabileraren kontrola hobetzeko neurriak hartuko dira eta, horretarako, zera egingo da:

- a) Espezie hauen edo kidekoen heriotzen jarraipena egin.
- b) Basoko Flora eta Fauna Batzordeko Ekotoxikologia Lantaldeak pozoitze-kasuetarako proposatutako protokoloa hedatu eta agintari eskudunak laginak biltzea ziurtatu.
- c) Ingurune naturalean jaki pozoituak legez kontra erabiltzeko Espainiako estrategia bete.
- d) Teknika analitikoak hobetu eta epaileen txostenak egin.
- e) Administrazioak eta epaileek pozoitze-kasuetan egiten dituzten jarduketak pertsonalizatu eta haien jarraipena egin.

12. artikulua. Elektrokuzioak eta talkek eragindako heriotzak gutxitzeko neurriak

1. Espainiako eta Euskal Autonomia Erkidegoko araudi elektroteknikoa betetzea ziurtatuko da Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen interes bereziko eremuetan eta ugatzaren edo/eta sai zuriaren eremu kritikoetan, eta eremuok “babesgunetzat” hartuko dira, abuztuaren 29ko 1432/2008 Errege Dekretuak, hegazti-fauna goi-tentsioko linea elektrikoek kontra talka egitetik eta elektrokutatzetik babesteko neurriak hartzeko denak, xedatzen duenarekin bat.

2. Ahal dela, ez da instalatuko kable biluziz eratutako linea elektriko berririk, baldin eta espezie hauen ohiko pausalekueetatik eta espezie hauek koka daitezkeen edo habia egin dezaketen lekueetatik 1.000 m baino gutxiagora badago. Horren ordez, beste ibilbide batzuk diseinatuko dira, edo kable isolatuz eratutako lineak edo lurpekoak instalatuko dira. Ezinezkoa bada aipatutako neurriak hartzea, gainkarga-hariak eta hari eroaleak seinatu egingo dira, hegaztiei talka egiteko arrisku txikiagoa izateko.

3. Enpresa elektrikoekin adostuta eta, beharrezkoa bada, lankidetzaz hitzarmenak sinatuta, linea elektrikoak zuzendu egingo dira pixkanaka, baldin eta Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen interes bereziko eremuetan dabiltzan hegaztiei haien kontra talka egiteko edo elektrokutatzeko arriskua badago.

4. Hegaztiei haize-sorgailuen eta energia ebakutzeko lineen kontra talka egiteko arriskurik ez izateko, ahal dela, Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen interes bereziko eremuetan eta, bereziki, ugatzaren edo/eta sai zuriaren eremu kritikoek 10 km-ko inguruan ez da instalatuko zentral eolikorik.

5. Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen interes bereziko eremuen inguruan lehendik dauden zentral eolikoetan espezieek talka ez egiteko eta heriotzak gutxitzeko beharrezko neurriak hartuko dira, eta zaintza-planen jarraipena egingo da.

13. artikulua. Ehizaren arriskuak gutxitzeko neurriak

1. Dagokionean, hau da, Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen interes bereziko eremuetan eta ugatzaren eta sai zuriaren eremu kritikoetan eragina dutenean, eragina eremu osoan izan edo zati batean izan, ehiza antolatzeke plan teknikoek kontuan hartuko dute beren jarduera-eremuaren barruan espezie horiek daudela. Hortaz, ehiza baldintzatuko dute, arau hauekin bat gutxienez, tipikotasunaren arabera betiere:

- a) Ugatzaren edo/eta sai zuriaren eremu kritikoak eta haiei janari gehigarria emateko programak gauzatzen diren eremuak erreserbetan edo ehizatik babestutako lekuetan sartuko dira, ehiza-denboraldian lasai daudela ziurtatzeko.
- b) Ugatzaren edo/eta sai zuriaren pausaleku bat, ohiko janleku bat edo espezie horiek habia egin dezaketen leku bat identifikatzen denean, ehiza larrian aritzeko uxaldien egutegia egokituko da haien 1.000 m-ko inguruan egin beharreko kakoak espezieen aldi kritikotik kanpo egiteko moduan, espezieak ugaltu ahal izan daitezen.
- c) Ahal dela, ugatzaren edo/eta sai zuriaren eremu kritikoan 1.000 m-ko inguruan gutxienez, espezie horiei janari gehigarria emateko programak gauzatzen diren eremuetan eta sai arrearen kolonien 500 m-ko inguruan gutxienez ez da instalatuko usoa eta birigarroa ehizatzeke postu finkorik, eta ez da sortuko ehizarako hazitako animaliak ehizatzeke eremurik.
- d) Ugatz bikote ugaltzaile bat edo sai zurien bikote ugaltzaile bat kokatzen bada, aldi kritikoan ehiza murriztu egingo da bikoteak habia egiten duen lekua 2.000 m-ko inguruan gutxienez.

2. Ehiza-denboraldian, dagokion lurralde historikoko foru-aldundiko, ehiza-barrutietako eta beste administrazio batzuetako oihanzaingo-zerbitzuek areago zainduko eta kontrolatuko dute espezieak kokatzen diren lurraldeen inguruko ehiza, eta jarraipen zorrotzagoa egingo dute.

14. artikulua. Umatze-leku, janleku eta pausaleku izan daitezkeen tokietan traba gutxiago egiteko neurriak

1. Lurralde historiko bakoitzeko organo eskudunak beharrezko jotzen dituen baldintzatzaileak ezar ditzake ugatzaren edo/eta sai zuriaren eremu kritikoetatik 1.000 m baino gutxiagora igarotzen diren pista, bide eta bidezidorrak erabiltzeko, lurraldeak lasai daudela ziurtatzearen.

2. Debekatuta dago lehergailuak eta makineria astuna erabiltzea ugatzaren edo/eta sai zuriaren eremu kritikoan 1.000 m-ko inguruan eta haiei janari gehigarria emateko programak gauzatzen diren eremuetan.

3. Oro har, debekatuta dago eskalatzea ugatzaren edo/eta sai zuriaren eremu kritikoetatik 500 m baino gutxiagora eta sai arrearen kolonietatik 100 m baino gutxiagora dauden hormetan.

Arrazoiak emanda betiere, lurralde historiko bakoitzeko organo eskudunak eskalada eta eskalatzeke sasoiak arautu ditzake, edo aipatutako distantziak txikitu, lurraldeak lasai

daudela ziurtzat duen eremu kritiko eta sai-kolonietan. Komeni dela jotzen bada, informazio-seinaleak jarriko dira sarbideetan, murrizketen arrazoiei, murrizketak indarrean dauden denboraldiari eta aplikatu beharreko araudiari buruzko informazioa emateko.

4. Ugatzaren edo/eta sai zuriaren eremu kritikoen eta sai arrearen kolonien 250 m-ko inguruan debekatuta dago hegazkin txikiak, ultra arinak, helikopteroak eta antzekoak 1.000 m baino beherago hegaldaraztea, larrialdietan edo inor erreskatatu behar denean izan ezik.

5. Nahiz eta ez egon araututa, beste asalduak ere mugatu egin daitezke, baldin eta aldi kritikoetan ugatzaren edo/eta sai zuriaren eremu kritikoetan dauden espezieak umatzeari, elikatzeari edo pausatzeari kalte egin badiezaiokete kokalekua, iraupena edo zarata-maila dela medio.

6. Baterako Kudeaketa Plana garatzeko jarduketa-programek lurraldeak kontrolatzeko eta zaintzeko plan bat ezarriko dute ugatzaren eta sai zuriaren aldi kritikoetarako, haien eremu kritikoetan martxan jartzekoa den edo martxan dagoen edozein erabilera edo jarduera ikuskatzeko.

15. artikulua. Abeltzaintzarekiko harremanaren eta abereen kontrako kalteen inguruko neurriak

1. Sai arreak abere biziei kalte egin dien salaketak erregistratzeko sistema bat sortuko du lurralde historiko bakoitzak.

2. Jakinarazpen-protokolo bat eta, beharrezkoa bada, ikuskapen-protokolo bat finkatuko da, gertakarien kasuistika zehazteko eta kalteen izaria eta gorabeherak egiaztatze edo/eta aztertze.

3. Lurralde historiko bakoitzeko foru-araudiaren bidez, sai arreak abere biziei egiten dizkien kalteak ordaintzeko mekanismoak eta kalte-ordainak eskuratzeko baldintzak ezar daitezke.

4. Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak azizandari arazoak sortzeari aurrea hartzeko eta horrelako arazo gutxiago izateko prebentzio-neurriak hartzea aztertuko da.

16. artikulua. Batasunaren Intereseko Hegazti Nekrofagoak Elikatzeko Babesguneen Inbentario Ofiziala

1. Batasunaren Intereseko Hegazti Nekrofagoak Elikatzeko Babesguneen Euskal Autonomia Erkidegoko Inbentario Ofiziala sortu da. Hauek osatzen dute Inbentarioa:

a) Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak daudelako Natura 2000 Sarearen barruan sartutako eremuak.

b) Kudeaketa-plan hau eta etorkizunean Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak babesteko onartzen direnak aplikatzeko lurralde-eremuak.

c) Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak elikatzeko lehentasunezko eremuak, baldin eta aurreko atalen barruan ez badaude. Hauek dira eremuak:

- Kudeaketa Planaren barnean dagoen eta Arriskuan dauden Espezieen Espainiako Katalogoak edo Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendak "galtzeko arriskuan" dagoela jotzen duen edozein espezie ugaltzeko edo janaria bilatzeko kokatu dela egiaztatzen den eremuak.

- Baterako Kudeaketa Planaren barruko espezieen populazio ugaltzailearen edo negutarraren ehuneko esanguratsu baten ohiko bizi-eremua osatzen duten eremuak.

2. Hasiera batean, hauek daude Batasunaren Intereseko Hegazti Nekrofagoak Elikatzeko Babesguneen Euskal Autonomia Erkidegoko Inbentario Ofizialaren barruan –Baterako Kudeaketa Planeko III. eranskinak dakar mapa–:

Araban

Garobel mendilerroa (ES000244 HBBEaren Arabako aldea).

Arcena mendilerroa - Gaubea –ES000245 HBBEa eta Batasunaren intereseko ES2110001 eta ES2110002 lekuak hartzen ditu barnean–.

Arkamo-Gibijo-Arrastaria –ES2110004 BILa hartzen du barnean–.

Toloño mendilerroa –ES000246 HBBEaren zati bat eta ES2110018 BILa hartzen ditu barnean–.

Urkiola –ES2130009 BILaren Arabako aldea hartzen du barnean–.

Izki –ES2110019 HBBEari eta ES2110019 BILari dagokie–.

Lokiz eta Kodesko mendilerroak –ES000246 HBBEaren zati bat hartzen du barnean–.

Aizkorri-Aratz mendilerroa (ES2120002 BILaren Arabako aldea).

Gorbeia –ES2110009 BILaren Arabako aldea hartzen du barnean–.

Gasteizko Mendiak - Entzia mendilerroa –ES2110015 eta ES2110022 BILak hartzen ditu barnean–.

Aldaia mendiak –ES2110016 BILa hartzen du barnean–.

Isurialde kantaauriarrean 500 m baino garaiago eta gainerako lurretan 700 m baino garaiago dagoen lur oro.

Bizkaian

Garobel mendilerroa (ES000244 HBBEaren Bizkaiko aldea).

Urkiola (ES2130009 BILaren Bizkaiko aldea).

Armañón –ES2130001 BILari dagokio–.

Gorbeia (ES2110009 BILaren Bizkaiko aldea).

Ordunte –ES2130001 BILari dagokio–.

Meatzaldea.

Gipuzkoan

Aralar –ES2120011 BILari dagokio–.

Aizkorri-Aratz (ES2120002 BILaren Gipuzkoako aldea).

Aiako Harria –ES2120016 BILari dagokio–.

Arno –ES2120001 BILari dagokio–.

Hernio-Gazume –ES2120008 BILari dagokio–.

Izarraitz –ES2120003 BILari dagokio–.

Pagoeta –ES2120006 BILari dagokio–.

Jaizkibel –ES2120017 BILari dagokio–.

Mandoegi mendilerroa.

Uli mendigunea.

500 m baino garaiago dagoen lur oro, jendeztatutako eremuetatik 1 km baino gehiagora badago oro har.

17. artikulua. Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak elikatzeko baldintza orokorrak

1. Azaroaren 14ko 1632/2011 Errege Dekretuak, basa-faunako espezie jakin batzuk giza kontsumorako erabiltzen ez diren animalia-azpiproduktuekin elikatzeko arautzen duenak, 3. artikuluan ezartzen dituen baldintza orokorrak aplikatuko dira.

2. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko urriaren 21eko 1069/2009 (EE) Erregelamenduak, giza kontsumorako erabiltzen ez diren animalia-azpiproduktuei eta produktu eratorriei aplikatu beharreko osasun-arloko arauak ezartzeko eta 1774/2002 (EE) Erregelamendua indargabetzeko denak, arautzen dituen produktuak erabil daitezke Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak elikatzeko.

18. artikulua. Batasunaren Intereseko Hegazti Nekrofagoak Elikatzeko Babesguneetan janaria eskuragarri egotea ziurtatzeko neurriak

1. Baterako Kudeaketa Planaren barruko hegaztien populazioak atxikitzea ziurtatzeko, lurralde historiko bakoitzean basoko faunaren gaineko eskumena duen organoak akordio edo lankidetzak hitzarmenak sinatu ditzake, 2. eta 3. kategorietako azpiproduktuak eta, dagokionean, 1. kategoriako materialak garraiatzea eta janlekuak horrelakoez hornitzea ziurtatzeko. Alde horretatik, 1. kategoriako materialak dira arriskutsua dela zehaztutako materiala duten animalia-gorputz eta -atalak.

2. Organo eskudunek toki-administrazioentzako entitateekin, gobernu kanpoko erakundeekin eta hiltzeekin berekin sinatu ditzakete akordio edo hitzarmenak. Betiere, Baterako Kudeaketa Planak eta aplikatu beharreko gainerako legediak diotena betetzen dutela ziurtatuko dute, baita publizitate nahikoa egiten dutela ere, interesdun guztiek parte hartzea ziurtatzeko.

3. Ugatzari eta sai zuriari dagokienez, populazioa desagertzen ez dela ziurtatzeko adina janari dagoela ziurtatuko da; bereziki, neguan eta udaberrian. Horretarako, jarduketako programa bakoitzak janari gehigarria emateko finkatzen dituen toki edo janlekuak jarriko dira martxan; tartean, Baterako Kudeaketa Planaren aplikazio-eremuko janlekuak.

4. Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak elikatzeko babesguneetako lurralde alde ekonomikotik balioztatzea bultzatuko da eta, horretarako, balioztapena baremazio- edo balioztatze-irizpide positibotzat hartuko da Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren ildoetan.

19. artikulua. Baliabide trofikoentzako kudeaketa janlekuetan

1. Lurralde historiko bakoitzean basoko faunaren gaineko eskumena duen organoak aztertuko du ea komeni den ekintza gidatuak martxan jartzea eskuragarri dagoen janari kantitatearen aldaketek arazoak eragiten dituztela egiaztatzen den eremuetan, Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak (Baterako Kudeaketa Planaren barrukoak) janari gehigarria emateko toki edo janlekuetan elikatzeko.

2. Instalazioak martxan jartzeko, animalien osasun-gaien gaineko eskumena eta giza kontsumorako erabiltzen ez diren animalia-azpiproduktuei buruzko araudia aplikatzeko eskumena duten administrazioek txosten bat egingo dute nahitaez horrelako azpiproduktuak hornitzeari eta garraiatzeari buruz. Txostena loteslea izango da, eta, aldekoa edo baldintzaduna ez bada, instalazioak ez dira jarriko martxan.

3. Janlekua natura-gune babestu batean instalatu nahi denean, hura babesteko organo eskudunak txosten bat egingo du nahitaez instalazioari eta hura erabiltzeko baldintzei buruz, natura-gune babestuaren berezko araubideak ezartzen dituen mugak kontuan izanik. Txostena loteslea izango da.

4. Baldintza hauek beteko dira gutxienez janlekua instalatzeko:

- a) Jendetzatutako eremuetatik behar adina urrun instalatuko da, eta, betiere, biztanleria-gune egonkorretatik, baserrietatik, etxebizitza sakabanatuetatik eta abeltzaintzarako instalazio iraunkorretatik 500 m baino gehiagora. Kokalekuak inola ere ez du jarriko arriskuan osasun publikoa, eta ez ditu aldatuko lurrazaleko edo lurpeko akuiferoen baldintzak.
- b) Aireko instalazio elektrikoetatik 1 km-ra egongo da gutxienez zuzenean, eta energia eolikoa ekoizteko instalazioetatik 3 km-ra gutxienez. Hala ere, aireko instalazio elektrikoetarako distantzia laburragoa izan daiteke, baldin eta aireko instalazioek hegazti-faunak talka egiteko eta elektrokutatzeko arriskuen kontrako seinale- eta babes-sistemak badituzte.
- c) Aireportu eta aerodromoen mugetatik 3 km-ra egongo da gutxienez zuzenean, eta errepide-sare nagusiko edo bigarren mailako errepide-sareko errepideetatik 500 m baino gehiagora.
- d) Hegaztiak elikatzeko egokitutako eremu bat izango du. Eremu hori mugatuta egongo da, eta babestu nahi den espezieko animaliak bakarrik sartzeko modukoa izango da; horretarako, beharrezkoa bada, hesiak erabiliko dira, edo espezieen berezko elikadura-ohituren arabera beste bitarteko batzuk.
- e) Azalera nahikoa izango du, eta leku ireki batean egongo da, Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoek sartu eta ihes egin ahal izateko.
- f) Garraio-ibilgailuak sartzeko bide bakarra izango du, giltzaz ixtekoa, eta animalia-azpiproduktuak uzteko lekua, mugatuta.

5. Janlekua instalatzeko, beharrezkoa da kudeaketa-plan bat prestatzea. Planak hauek bilduko ditu gutxienez:

- a) Instalazioa sustatzen duen administrazio edo entitatea eta instalazioaren titular edo/eta kudeatzailea.
- b) Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak elikatzeko azpiproduktuak ematekoak diren ustiatgien, saltokien, gune zoologikoen eta ehiza larriko barrutien zerrenda.
- c) Janlekuaren kokaleku geografikoa eta erabiliko duten espezieak.
- d) Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak elikatzeko animalia-azpiproduktuen espezieak, motak, kantitatea, gutxi gorabeherako pisua eta adina eta haiei buruzko beste edozein datu beharrezko; eta urteko isurpenen aurreikuspena, hilabetetan gutxi gorabehera banatuta.
- e) Azpiproduktuak jatorritik janlekura egitekoak diren bidea.

- f) Janlekua sustatzen edo kudeatzen duen administrazioak azpiproduktuak onartzen dituen idatzizko konpromisoa.
- g) Hondakinak garbitzeko eta janlekua desinfektatzeko plana, baliabideak eta maiztasuna.
- h) Hondakinak suntsitzeko sistema.

6. Janlekua martxan jarritakoan, ekarpen-programa bat jarriko da martxan, zenbat janari emango den, zenbatean behin emango den eta noiz utziko den zehazteko eta, hartara, Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen populazioen dinamikari kalte ez egiteko.

7. Animalia-azpiproduktuen itxura eta kantitatea elikatu nahi diren espezieak ahal bezainbat erakartzeko modukoak izango dira.

8. Janlekua kudeatzen duen organoak osasun-arloan garrantzia izan dezakeen gorabehera ororen berri emango dio osasun-gaien gaineko eskumena duen organoari.

9. Janlekua kudeatzen duen organoak erregistro-liburu bat izango du, ekarpen guztiak kontabilizatzeko. Gutxienez, hegaztiak janlekuan elikatzeko erabiltzen diren animalien kantitatea, espeziea, identifikazioa, gutxi gorabeherako pisua eta jatorria zehaztuko ditu, eta adieraziko du noiz egiten diren ekarpenak, zenbat hondakin gelditzen diren eta zer egiten den hondakinekin.

20. artikulua. Baliabide trofikoaren kudeaketa Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak elikatzeko babesguneetan

1. Lurralde historiko bakoitzean basoko faunaren gaineko eskumena duen organoaren proposamenez, osasun-gaien gaineko eskumena duen organoak baimena eman dezake 2. eta 3. kategorietako materialez gain 1. kategoriako materialak erabiltzeko Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak elikatzeko. Alde horretatik, 1. kategoriako materialak dira arriskutsua dela zehaztutako materiala duten animalia-gorputz eta -atalak, eta Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak elikatzeko babesguneetako abeltzaintza-ustategi eta herri-larre jakinetan baimenduko dira gehienez. Dagokionean, hildako animaliak ez dira jasoko.

2. Baimena emateko, animalien osasun-gaien gaineko eskumena duen organoak Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak elikatzeko babesguneetan dauden abeltzaintza-ustategiak identifikatuko ditu, eta Batasunaren Intereseko Hegazti Nekrofagoak Elikatzeko Babesguneetako Ustategien Inbentarioa osatuko du. Baldintza hauek betetzen dituzten ustategiak sartuko ditu Inbentarioan, kontuan izanik ea egokiak diren hegaztiak janlekuetatik kanpo elikatzeko programetan parte hartzeko:

- a) Abeltzaintzako ustiapena intentsiboa ez izatea; jardunbide estentsibo eta jasangarriak aplikatzea ardi-, ahuntz-, txerri-, behi- edo/eta zaldi-espezieak kudeatzeko.
- b) Animalien entzefalopatia espongiforme kutsakorrek zaintzeko programa betetzea (zehazki, abenduaren 22ko 3454/2000 Errege Dekretuaren II. eranskinak arautzen dituen probak egitea) eta osasun-arloan indarrean dagoen araudiak animaliak mugitzeko murrizketak edo kautelazko neurriak ezarri ez izana.
- c) Animalien osasun-gaien gaineko eskumena duen organoak gaixotasunak zaintzeko, kontrolatzeko eta errotik desagerrarazteko Espainiako edo Euskal Autonomia Erkidegoko

programen barruko gaixotasunen inguruan ezartzen duen kalifikazioa izatea. Hala ere, arriskuaren azterketa baten arabera, baldintza hau betetzetik salbuets dezake animalien osasun-gaien gaineko eskumena duen organoak.

d) Albaitaritza-zerbitzu ofizialek entzefalopatia espongiforme kutsakorren eta pertsona edo animaliek harrapa ditzaketen gaixotasunen prebalentzia zaintzea aldian-aldian.

3. Babesguneen barruko abeltzaintza-ustategietako animalien balizko heriotza-tasa eta Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen balizko elikadura-beharrak kalkulatuko dira, gaixotasunak kutsatzeko izan daitekeen arriskuaren arabera.

4. Abeltzaintzako ustategi baimenduek erregistro-sistema bat izango dute eta, gutxienez, Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak elikatze erabiltzen diren animalia hilen identifikazioa eta gutxi gorabeherako pisua zehaztuko dituzte. Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak kudeatzen dituzten agintariek erregistroa kontrolatuko dute, eta animalien osasun-gaien gaineko eskumena duen organoa informatuko dute.

5. Animalien osasun-gaien gaineko eskumena duen organoak entzefalopatia espongiforme kutsakorrak eta hildako animaliek pertsona edo animaliei kutsa diezazkieketen gaixotasunak ez kutsatzeko neurriak zehaztuko ditu gutxienez baimenean, baita babestu nahi diren espezieen elikadura-ohituren inguruko berariazko neurriak, garai jakin batzuetan animaliak elikatze murrizketak, ekoizpen-animaliak ibiltze murrizketak eta pertsona edo animaliek harrapa ditzaketen gaixotasunak kutsatzeko arriskuak kontrolatzeko beste neurri batzuk, hala nola babesguneen barruan animalia-azpiprodukturik erabili gabe elikatzen diren espezieen inguruko neurriak. Era berean, adieraziko du zer ardura duten aipatutako neurrien gainean babesguneen barruan animaliak elikatzen laguntzen duten pertsona eta entitateek eta ekoizpen-animalien ardura dutenek.

6. Baldin eta animalien gorpuak aireko instalazio elektrikoetatik hurbil edo landaretza itxia den lekuetan (Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen hondakinak nekez aurki eta har ditzaketen lekuetan) agertzen badira, ustategiaren arduradun edo titularrek janlekuetaraino eramango dituzte, ustategia kudeatzeko ibilgailuen bidez. Era berean, ez da utziko animaliarik hiriguneetatik eta hornikuntzarako ur-harguneetatik 300 m baino gutxiagora, ezta ibai-ibilgu, ur-masa, hezegune, iturburu, leize eta putzuetatik 100 m baino gutxiagora.

7. Animalien gaixotasunak zaintzeko, kontrolatzeko eta errotik desagerrarazteko Espainiako programen esparruan finkatzen diren kontrol, ikuskapen edo/eta analisiak egingo dituzte agintari eskudunek, elikadura-programa ofizialetan parte hartzen duten ustategien osasun-egoera ebaluatzeko.

8. Animalien osasun-gaien gaineko eskumena duen organoak emandako baimenak indarrrik gabe gera daitezke kautelaz, egoera hauetan:

a) Hegaztiak elikatze erabiltzen diren animalien jatorriko abeltzaintza-ustategi, azienda edo natura-gune hesitu batean entzefalopatia espongiforme kutsakorra kutsatzeko arriskua dagoela susmatzen edo egiaztatzen denean, arriskua baztertu bitartean.

a) Hegaztiak elikatze erabiltzen diren animalien jatorriko abeltzaintza-ustategi, azienda edo natura-gune hesitu batean pertsona edo animaliek harrapa ditzaketen

gaixotasun larriak agertu direla susmatzen edo egiaztatzen denean, arriskua baztertu bitartean.

c) Ingurune naturalean dauden gorpuen kopurua neurritz kanpoko denean, dela ekarpenak gehiegizkoak direlako, dela Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen populazioek behera egiten dutelako berez inguruan.

d) Kudeaketa Planak ezartzen duen neurriren bat hartzen ez denean.

21. artikulua. Espezieen Euskadiko populazioen bilakaerari eta arazoei buruz informazio fidagarri, eguneratu eta etengabea izateko neurriak

1. Informazio eguneratua izateko ugatz-populazioari buruz, errolda egingo da urtero, egiaztatzeko alerik ba ote den, baxarik izan den, ordezkapenik izan den eta zergatik baden edo ez den alerik. Era berean, ugatz-populazioaren parametroak egiaztatuko dira, hala nola bikote lurraldekoien kopurua, ugalketaren arrakasta-tasa, ugalketa-tasa eta txiten heriotza- eta iraupen-tasa. Sai zurien errolda bost urtean behin egingo da gutxienez, eta sai arreena, berriz, hamar urtean behin gutxienez.

2. Informazio eguneratua izateko asai arreen populazioari buruz, bi umatze-gune edo -kolonia aukeratuko dira gutxienez lurralde historiko bakoitzeko, eta populazioaren parametroen jarraipena egingo da urtero, hala nola bikote lurraldekoien kopuruarena, ugalketaren arrakasta-tasarena, ugalketa-tasarena eta txiten heriotza- eta iraupen-tasarena.

3. Ahal dela, eskualdez gairik errolda, baterako errolda eta jarraipen-programa guztietan parte hartuko da, beste autonomia-erkidego batzuekin koordinatuta.

4. Prospekzioak egingo dira utzitako lurraldeetan eta, baldin eta ale heldu edo ia heldurik edo horrelakoen arteko elkarketarik ikusten bada egun okupatuta dauden lurraldeetatik kanpo, egiaztatu egingo da, norantz sakabanatzen diren, lurralderik ez duen alerik kokatzen den edo bikote berririk kokatzen den ikusteko.

5. Espezie hauetako aleen heriotzari buruzko informazio guztia arretaz ikertuko da, zuzena den eta ale helduak, helduaroaren atarian daudenak eta gazteak zergatik hiltzen diren jakiteko.

6. Hartu eta naturan askatzeko sendatu ezin diren ale zauritu eta gaixoak hegaztiak itxian hazteko onetsitako zentroetara eramango dira, hegaztiak *ex situ* babesteko programarik badago betiere, etorkizunean arrautza eta txitak ingurunean sartzeko eta populazioa sendotzeko lankidetzak-programak prestatzeko.

7. Espezie hauen biologiari, hiltzeko arrazoiei eta faktore mugatzaileei, haien habitatak eta elikadurak bizi-ziklo osoan dituzten eskakizun eta ezaugarriak, espezieek birkoloniza ditzaketen eremuei, kudeaketa-neurriak espezieen kontserbazio-egoeran izan dezaketen eraginari, elikadura-iturriak eta intereseko beste fauna- eta flora-espezie batzuei buruzko ezaupideak hobetzeko azterlanak egitea bultzatuko da. Berezi, Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak babesteko estrategiak ebaluatzeko eta, beharrezkoa bada, egokitze ikerketa-ildo aplikatuak sustatuko dira.

8. Espezie hauetan eragina izan dezaketen patologia eta parasitatzeen eragin-maila, jatorria eta ondorioak ikertuko dira, baita horrelakoei aurea hartzeko eta horrelakoak tratatzeko metodoak ere.

9. Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoek entzefalopatia espongiforme kutsakorren kutsapenean betetzen duten eginkizuna aztertzeke lanak egitea bultzatuko da, baita saiak eta beste hegazti sarraskijale batzuek pertsona edo animaliek harrapa ditzaketen beste gaixotasun batzuen ostalari edo eramaile diren aldetik betetzen duten eginkizuna aztertzeke lanak ere.

10. Espezie hauei buruzko datu-base bat sortuko da lurralde bakoitzean, diseinu bera eta bateragarria duena hiru lurraldeetan, espezieon banaketari, ugaritasunari, ugalketari eta fenologiari buruz eta hegaztiei traba egiteko edo hegaztiak hiltzeko arrazoiei buruz dagoen informazio guztia eta sortzen dena biltzeko. Horretarako, Administrazioaren eta lehengoratzeko eta ikerketa-zentroen mendeko teknikari eta oihanzainek datuak biltzeko mekanismo egokiak prestatuko dira, eta tokiko beste teknikari, naturalista eta ornitologo batzuekin elkarlanean aritzeko bideak sustatuko dira.

22. artikulua. Aleak markatzeko eta haien jarraipena egiteko programa baten ezarpena

1. Euskadiko Administrazio Orokorreko organo eskudunarekin koordinatuta, lurralde historiko bakoitzean basoko faunaren gaineko eskumena duen organoak lurraldean kokatzen diren aleak eta denboraldi bat ematen dutenak harrapatzeke eta markatzeko programa bat ezarriko du, eskura dituen teknikarik hoberenak erabiliz, espezieei buruzko berariazko azterlan edo programek diotenarekin bat, jakiteko zer eremu dituzten espezieek habia egiteko, pausatzeke, etzateke, janaria bilatzeko eta lortzeko eta aldi baterako migratzeko. Era berean, markatutako aleen jarraipena egiteko programa bat garatzeko beharrezko bitartekoak jarriko ditu, argi eta garbi zehazteko zer gertatzen ari den lurralde bakoitzean, Euskal Autonomia Erkidego osoan eta lurralde mugakideetan, kontuan izanik populazioek mendebalderantz hedatzeko joera dutela.

2. Ildo horretan, foru-aldundietako eta Eusko Jaurlaritzako sail eskudunek eta beste administrazio publiko batzuek, unibertsitateek, ikerketa-zentroek, Espainiako eta nazioarteko lantaldeek eta enpresa publiko eta pribatuak espezieen jarraipena egiteko lankidetzahitzarmenak sinatzea eta beste koordinazio- eta finantzaketa-mekanismo batzuk ezartzea bultzatuko da.

23. artikulua. Baliabide trofikoaren erabileraren jarraipena

1. Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak elikatzeko babesguneetan bizi edo elikatzen diren Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen populazioen gutxienezko eskakizun trofikoak (beharrezko biomasa kiloak urteko) balioztatuko dira babesgune bakoitzean, ahalik eta doien. Era berean, Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen populazioak elikatzeko eskuragarri dagoen janari kantitatea ebaluatuko da babesguneetan, nahikoa edo urria den jakiteko.

2. Janari gehigarria emateko guneen eraginkortasuna ebaluatuko da, eta egiaztatuko da ea hegaztiak onartu egiten dituzten, baita zenbateraino erabiltzen dituzten eta zer-nolako

eragina duten Kudeaketa Planaren barruko espezieek eremuak birkolonizatzeko prozesuan. Era berean, aztertuko da non koka daitezkeen janari gehigarria emateko gune berriak.

3. Zer animalia-azpiproduktu mota aukeratu jakiteko azterlanak egitea bultzatuko da, Kudeaketa Planaren barruko espezie bakoitzaren arabera, lurralde-eskala (eskala geografiko) eta denborazko eskala (eskala fenologiko) ezberdinetan, adin-multzo eta sexuaren arabera eta eskuragarri dagoen baliabide kantitatearen arabera.

4. Baldin eta populazioen egoera biogeografikoa eta tamaina direla medio ezinezkoa bada horrelako azterlanak lurralde historiko bakoitzean egitea, erakunde komunetan basoko fauna eta floraren gaineko eskumena duen saila eta foru-aldundietan Baterako Kudeaketa Plana aplikatzeko eskumena duten sailak elkarlanean arituko dira Euskal Autonomia Erkidegoan eta Euskal Autonomia Erkidegoaz gaindi espezieen biologiari buruzko ezaupideak handitzeko eta Pirinioetako eta Iberiar penintsulako populazioen egoera eta bilakaera demografikoa zehazteko egiten diren ikerketa-proiektuetan.

24. artikulua. Espezie hauen egoerari buruzko informazioa eta sentsibilizazioa jendartean eta, bereziki, administrazioetan

1. Dibulgazio-kanpainak sustatuko dira, iritzi publikoa Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen egoerari, arazoei eta babes-beharrari buruz areago sentsibilizatzeko eta Baterako Kudeaketa Plana aplikatzeko ezartzen diren arau eta neurriak jendarteratzeko.

2. Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen espezieak jendarteratzeko berariazko planak prestatuko dira Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen interes bereziko eremuei dagozkien edo haietatik hurbil dauden natura-guneetan natura interpretatzeko zentroetan.

3. Berariazko heziketa-kanpainak egingo dira Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen interes bereziko eremuetatik hurbil dauden eskoletan, haur eta gazteak espezie hauen kontserbazioari buruz sentsibilizatzeko, baita espezieak babesteko neurriak eragina duten talde guztien artean (bereziki, ehiztari, abeltzain, mendizale eta eskalatzailen artean) eta espezieetan eta haien habitatetan interesa duten taldeen artean ere.

4. Aldian-aldean, Kudeaketa Planak gizartean duen onespren-maila ebaluatuko da; bereziki, landa-ingurunearekin harreman handia duten taldeen artean duena.

5. Pozoiak erabiltzearen aurka sentsibilizatzeko berariazko kanpainak egingo dira.

6. Administrazioako oihanzaingo-zerbitzuak eta Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen interes bereziko eremuetako ehiza-barrutietakoak trebatzeko jarduerak sustatuko dira, espezieen biologiari eta arazoei, haien egungo egoerari eta Baterako Kudeaketa Planaren edukiari buruz dituzten ezaupideak hobetzeko.

7. Eusko Jaurlaritzako sail eskudunak eta lurralde historiko bakoitzeko sail eskudunek Baterako Kudeaketa Plana teknikarien artean hedatzea bultzatuko dute (bai beren administrazioetako teknikarien artean; bai foru-aldundietan, Eusko Jaurlaritzan eta Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen interes bereziko eremuetako udaletan gaiarekin zerikusia duten sail eta

estamentuetako teknikarien artean), espezieen arrisku-egoera eta estatus juridikoa eta Baterako Kudeaketa Planaren helburu, arau eta babes-neurriak ezagutaraz daitezen eta horiek guztiak kontuan har daitezen nork bere eskumenen esparruan sustatzen dituen jarduketa sektorialetan.

8. Kudeaketa Plana autonomia-erkidego mugakideetan fauna eta habitatak kudeatzeko eskumena duten entitateei, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioko Natura Ingurunearen Zuzendariordetza Nagusiari eta espezieekin lan egiten duten lantalde teknikoetako kideei helaraziko zaie, haren berri izan dezaten, eskualdeen arteko lankidetzaren esparruan neurri osagarriak hartzea azter dezaten eta ugatza eta, oro har, Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak babesteko eta lehengoratzeko jarduketak koordina ditzaten.

25. artikulua. Koordinazioa

1. Foru-aldundietako sail eskudunek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sail eskudunak informazioa emango diote elkarri Kudeaketa Planaren aplikazioari buruz eta, ekitaldi bakoitzeko 31 baino lehen, oroitidazki bat helaraziko diote elkarri, hauek zehazten dituen: egindako jarduketak, lortutako emaitza eta helburuen ebaluazioa, eta Kudeaketa Planaren barruko espezieak Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendaren barruan uzteko, Zerrendatik ateratzeko edo kategoriaz aldatzeko proposamena.

2. Foru-aldundietako sail eskudunekin batera, jarduketak Administrazio beste sail eta erakunde batzuekin (foru-aldundietako bertako, Eusko Jaurlaritzako, udaletako eta administrazio-batzordeetakoekin) koordinatzea bultzatuko du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sail eskudunak, baita gaiarekin zerikusia duten gizarteko beste talde batzuekin koordinatzea ere. Era berean, sail eskudunetako zerbitzu teknikoak harremanetan egongo dira Kantabrian, Gaztela eta Leonen, Errioxan eta Nafarroan natura babesteko eskumena duten zerbitzuekin, baita Pirinioen eta Kautauri itsasoaren inguruko gainerako administrazio publikoekin ere, informazioa trukatzeko eta lurralde komunitateko umatzetarako egiten diren jarduketak egokiro koordinatzea bultzatzeko eta espezie hauen kudeaketari buruzko esparru zabalagoko bilera teknikoetan eta foroetan parte hartzeko.

3. Foru-aldundietako sail eskudunek aurrez emandako informazioa erabiliz, urte bakoitzeko martxoaren 31 baino lehen, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sail eskudunak aurreko urte naturalean bere lurraldean egindako jarduketei buruzko informazioa emango dio Giza Kontsumorako Erabiltzen Ez diren Animalia Azpiproduktuen Espainiako Batzordeari —azaroaren 21eko 1429/2003 Errege Dekretuaren bidez sortu zen Batzordea—, eta hark Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioko Natura Ingurunearen Zuzendariordetza Nagusiari helaraziko dio. Hauek aipatuko ditu gutxienez:

- a) Batasunaren intereseko zer hegazti nekrofagori ezartzen zaizkion Kudeaketa Planak ezartzen dituen neurriak.
- b) Baimendutako janlekuen eta Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak elikatzekeko babesguneen erregistroa eta kokalekua.

- c) Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak elikatzeko animalien jatorriko establezimenduak, 1. kategoriako azpiproduktuak hornitzen dituztenak zehaztuta.
- d) Janlekuetara eta Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak elikatzeko babesguneetara eramandako azpiproduktuen guztizko biomasa, kilogramotan, animalia-espeziearen arabera eta azpiproduktu kategoriaren arabera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko urriaren 21eko 1069/2009 (EE) Erregelamenduarekin bat.
- e) Entzefalopatia espongiforme kutsakorra detektatzeko egindako proba azkarren emaitzak eta espezie bakoitzari egindako testen kopurua.

4. Baterako Kudeaketa Planaren aplikazioa ahalik eta eraginkorrena izan dadin, lurralde historikoetako sail eskudunek lankidetzat-hitzarmenak sina ditzakete beste administrazio publiko batzuekin, unibertsitate eta ikerketa-zentroekin, Espainiako eta nazioarteko lantaldeekin, irabazi-asmorik gabeko erakundeekin eta enpresa publiko zein pribatuekin, baita beharrezko jotzen dituzten gainerako koordinazio- eta finantzaketa-mekanismoak ezarri ere.

26. artikulua. Arau-haustea

Baterako Kudeaketa Planaren kontrako arau-haustea zigortu egingo dira, natura zaintzeari buruz indarrean dagoen araudiak dioenaren arabera. Gainera, bide penalean, bide zibilean edo beste edozein bidetan egon daitekeen erantzukizuna eska daiteke.

AZKEN XEDAPENA

Kudeaketa Plana lurralde historiko bakoitzean aplikatzeko, Plana foru-agindu bidez onartu behar da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek batera idatzi eta sei hilabetez. Plana lurralde historiko bakoitzeko aldizkari ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

I. ERANSKINA. Baterako Kudeaketa Planaren barruko Batasunaren intereseko hegazti-espezie nekrofagoak

1. "UGATZA" *Gypaetus barbatus* (Linnaeus, 1758)

1.1. Espeziearen ezaugarriak

1.1.1. Deskripzioa

Espezie politipikoa da. Europako hegoaldeko mendietatik Txina erdialdera eta Mongoliara bitartean bizi da, eta, Ekialde Ertainean barrena, Sinai penintsula, Yemen, Etiopia eta Afrikako erdialde eta hegoaldera bitartean. Berriki egindako azterlan genetikoek arabera, Iberiar penintsulako ugatzak eta munduko gainerako guztiak ezberdinak dira argi eta garbi; hau da, leinu mitokondrial ezberdinetakoak dira.

Ugatza harrapari handia da: 100-115 cm luze da, eta 266-280 cm-ko hego-zabalera du, eta 3,6-7,1 kiloko pisua. Hegan, silueta mehea du, eta gurutze-formakoa, hegoak luzeak eta nahiko estuak eta isatsa luzea eta ziri-formakoa baititu. Arrek eta emeek antzeko lumajea dute. Helduek luma beltzak dituzte mokoaren alboetan eta, horregatik, "bizardunak" diren halako itxura dute. Goiko atalak, burua izan ezik, ilunak dituzte; burua, bularraldea eta sabela, berriz, laranja-horiak. Koloreok artifizialak dira, metal-urezko iturrietan murgilduta sortutakoak. Gazteek iluna dute gorputz osoa eta, lumak hainbat aldiz berrituta, seigarren edo zazpigarren urtean hartzen dute helduaroko behin betiko lumajea.

1.1.2. Banaketa eta populazioak

Ugatza Eurasiako eta Afrikako mendigune handietan bizi da. Han egiten du habia, 1.000 metroko altitudetik gora. European atzerakada handia egin du mende honetan eta, gaur egun, mendialde batzuetan baino ez du egiten habia: Errusian, Turkian, Kretan eta Korsikan, baita Pirinioetan eta Alpeetan ere —1986an espeziea berriz zabaltzeko abiatu zen programa baten emaitza da azkenekoa—. 2005ean, Europako ugatz-populazioa 175 lurraldetan bizi zela kalkulatu zen —horietako 141 ugalketa-unitateei zegozkien—. Joera atzeranzkoa zen. Pirinioetako populazioak, aldiz, 128 lurralde okupatzen zituen, eta 113 ugalketa-unitatetan banatuta zegoen; Europako nagusia zen, eta asko hazia zen aurreko hamarkadan: 102 Espainian, 25 Frantzian eta bat Andorran.

Espainiako populazio ugaltzaileak gora egiteko joera txiki bat izan du: 74 ugalketa-unitate zeuden 1998an, eta 113, berriz, 2009an.

Espainiako populazioaren lurraldeak Pirinioetan eta Pirinioetako mendi-adarretan daude funtsean, baina badira batzuk Kanpoaldeko Mendilerroetan eta beste bi Euskal Mendietan; antzina, berriz, ugatza Iberiar penintsulako mendikate handietan bizi izan zen. Gainera, ugatz heldugabe eta erratiko gehiago ikusi dira Iberiar penintsulako beste lurralde batzuetan; batez ere, Kantauriar mendikatean.

Euskal Mendiak eta, batez ere, isurialde kantauriarraren eta mediterraneoaren banalerroko mendigune nagusiak dira espeziea Kantauri itsasoaren inguruko mendietarantz eta Europako

Mendietarantz berez hedatzeko guneak, eta lurraldea lotune garrantzitsua da Europako hegoaldeko mendi-korridore ekologikoaren barnean: Kantauriar mendikatea - Pirinioak - Erdialdeko Mendigunea - Alpeak -Karpatoak korridorean.

1.1.3. Habitata eta biologia

Ugatza hegazti nekrofago sedentarioa da batik bat, baina helduaroaren atarian dauden gazteak hara-hona ibili ohi dira. Ugatz gazteak eta heldugabeak jaiolekuaren inguruan geratu ohi dira. Bestela, nora ezean urrun joaten dira eta, azkenean, janari ugari duten tokietan kokatzen dira, hala nola janlekuen inguruan.

Ugatza ugaltzeko fenologia oso goiz hasten da: araldia eta habia egiteko garaia urritik abendura bitartean izaten dira, eta ugalketa-unitate gehienek abenduaren amaieratik urtarrileko lehenengo hamabostaldira bitartean hasten dute errunaldia, lurraldean duten habietako batean —hiru eta bost bitartean izaten dituzte—. Ugatzak haitzuloetan eta hormatzar eta pendiz harritsuetako irtenguneetan egiten ditu habiak.

Inoiz, hiruzpalau alek osatzen dituzte ugalketa-unitateak. Ugatzak arrautza bat edo bi erruten ditu. Bi gurasoek txitatzen dituzte arrautzak, 53-55 egunez, eta txitak hazi ere bi gurasoek egiten dute. 115-130 egun dituztela, hegan egiteko gauza dira txitak, eta 206-364 egun dituztela, beren kasa moldatzeko.

Espeziearen ugalketa dela eta, ugaltzeari ekin zioten bikoteen arrakasta-tasa bikoteko 0,58 txitakoa izan zen 2008an, eta ugalketa-tasa, berriz, bikoteko 0,45 txitakoa. Tasa baxuak dira izatez, baina azken urteetako altuenak dira. Ugatzak 7 urte dituenetik aurrera ekiten dio ugaltzeari. Habien inguruetan ibilgailuentzako bide asko daude, eta hori kaltegarria da ugalketa arrakastatsua izateko. Gainera, baldin eta jendea habietatik hurbil kirolean (hala nola eskaladan eta parapentean) edo ehizan (hala nola basurde-uxaldietan) aritzen bada txitaldian, litekeena da ugatzak arrautzak erruteari uztea. Pirinioetan, lurraldeen % 20en gutxi gorabehera hirukoteak daude: bi ar eta eme bat.

Txiten % 65 inguru helduaroaren atarira iristen dira; hein batean, heldugabeei berariazko janlekuetan ematen zaien janari gehigarriari esker.

Ugatza 1.000-3.000 m arteko altitudetan bizi ohi da, mendialde, leku malkartsu eta ibar zabaletan. Txitak hazteko, ezin iritsizko leku malkarrak aukeratzen ditu, baina ibarretara eta toki jendeztatueta ere jotzen du, janari bila; sarri, herri eta baserri inguruetara. Hezurak airetik botata hautsi ohi ditu, eta, horregatik, mendi-hegal eta ordoki harritsuei estu lotuta bizi da. Gainera, ugatzak ezinbestekoa du inguruan belarjale-populazio handiak izatea, basokoak izan edo etxeakoak izan. Pirinioetan, batez besteko dentsitatea 100 km²-ko 0,53 bikotekoa da.

Ugatzaren dietaren osagai nagusiak dira basoko eta etxeako ungulatu ertainen hezurak eta ugaztun-, narrasti- eta hegazti-haragi freskoa. Gorpuetatik hartzen du haragia, eta habiara eramaten du, txitak txikiak direnean elikatzeko. Hezurak oso garrantzitsuak dira ugatzaren elikaduran: txikiak oso-osorik irensten ditu, eta handiak, berriz, puskatu egin ohi ditu, airetik

lurrera botata. Sarraskia jaten du, baina ez da lehiatzen beste putreekin: besteek utzitako gorpuak aprobetxatzen ditu.

1.1.4. Populazioaren joera

1960ko hamarkadara arte, ugatz asko zeuden Iberiar penintsulako mendikate garai guztietan, baina, orduan, gainbehera etortzen hasi zen, eta 1980ko hamarkadarako, Pirinioetako populazioak baizik ez zuen iraun.

Hala ere, azken urteetan, populazioaren joera ona izan da: 1980ko hamarkadan, 40 lurralde zeuden, eta, gaur egun, 100dik gora; ugalketa-unitateen kopurua, berriz, bikoiztu egin da. Ugalketarik ez dagoen lurraldeen kopurua ezberdina da urtetik urtera, dela bikoteak egonkortu egiten direlako, dela desegin egiten direlako eta lurraldetik desagertzen direlako. Alabaina, bikoteen kopurua goraka ari bada ere, ugalketa-tasa gero eta baxuagoa da: 1985 eta 1995 artean, 0,64koa izan zen, eta, 1995 eta 2005 artean, berriz, 0,44koa.

Iraupen-tasa ona da oro har, baina ez dago bermatuta, atzerakadak izaten baitira heriotza ugari gertatzen diren boladetan –pozoitze-kasuek eragin handia dute horrelakoetan—. Adinari erreparatuta, iraupen-tasa oso baxua da lehen urtean; 2 eta 4 urte bitartean, berriz, altua; eta 5 urtetik aurrera, azkenik, gero eta baxuagoa.

1.2. Euskal Autonomia Erkidegoko egoera

Duela 50 urtera arte ohikoa zen ugatzak Euskadin ibiltzea. Gaur egun, hegaztiaren izena finkatuta dago, baina nekazariak beste izen batzuk ere erabili izan dituzte, hala nola “arrano gorria”, arrano beltzaren aurrez aurre.

Euskal Autonomia Erkidegoan, gauza jakina da 1960ko hamarkadara arte ugatzak habiak zituela Valderejon eta Sobrónen. Garobel mendilerroan, Urkiolan, Aizkorrin eta Aralarren ere bazen habiarik, baita Pancorbon ere, handik hurbil dagoen haitzarte batean.

Lurraldea Sobrónen zuten azken ugatzak 1979. urtean ikusi ziren, eta, 1980ko hamarkadako lehen urteetara arte, ugatz ugari izan ziren Valderejon. Han eta hemen, hainbat hartxingadi erabiltzen zituzten hezurak apurtzeko, Vallegrul eta Peña Roja inguruetan.

Azken urteetan, Euskal Mendiak kolonizatzen ahalegindu da ugatzak eta, 1990eko hamarkadatik aurrera, hiru lurralde kolonizatu ditu gutxienez, Aralarren (Nafarroa eta Gipuzkoa artean), Urbasa-Lokizen (Nafarroa eta Araba artean) eta Andian (Nafarroan). Gaur egun, ordea, bi baino ez daude: Aralarrekoa eta Andiakoa. Aipatzekoa da Andiako ugatzak ugaltzen ahalegindu direla. Egun, ugatzak ez da ugaltzen Euskadin, baina urtero, neguan, bi eta sei ugatz bitartean azaltzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko ekialdean, EAEko eta Nafarroa arteko mugan. Gainera, azken urteetan ugatzak sarri ikusi izan da Euskal Autonomia Erkidegoko beste mendi batzuetan ere.

1.3. Mehatxuak eta atzera egiteko faktoreak

Ugatza hiltzeko faktore nagusiak pozoia erabilerarekin, linea elektriko kontrako talkekin eta legez kontrako ehizarekin lotuta daude. Gizakiak habia egiten duten tokietan traba egitea, abeltzaintza estentsiboa murriztu izana eta, horren ondorioz, eskuragarri dagoen janari kantitatea jaitsi izana, eta habitata aldatu eta suntsitu izana ere arrisku-faktoreak dira. Gainera, espezie honen filopatria oso indartsua da, eta inguruko mendialdeetara hedatzea eragozten du horrek.

1.4. Legezko egoera

Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendak (6/1994 Legeak, 167/1996 Dekretuak eta 1997ko uztailaren 8ko Aginduak) "galtzeko arriskuan" dagoen espezieetat du sai zuria, baita Arriskuan dauden Espezieen Espainiako Katalogoak (otsailaren 4ko Errege Dekretuak, Babes Araubide Bereziaren Pean dauden Basoko Espezieen Oinarrizko Zerrenda eta Arriskuan dauden Espezieen Espainiako Katalogoa garatzeko denak). Europan, "arriskuan" dagoela jotzen da, eta, munduan, aldiz, "arriskuan ez" dagoela.

Azkenik, basoko fauna- eta flora-espezieen merkataritza arautzeko CITES Erregelamenduaren barruan dago ugatza —3626/82/EEE eta 3646/83/EEE erregelamenduek arautzen dute—, C1 mailako espezieen artean, baita Europar Batasunaren Hegaztiei buruzko Direktibaren I. eranskinaren barnean (2009/147/EE Direktiban) eta Bernako Hitzarmenak zorrozki babesten dituen espezieen zerrendan ere.

2. "SAI ZURIA" *Neophron pernocterus* (Linnaeus, 1758)

2.1. Espeziearen ezaugarriak

2.1.1. Deskripzioa

Neophron pernocterus subsp. *pernocterus* Europako hegoaldean, Kanaria uharteetan, Afrikan eta Asiako hego-mendebalde eta erdialdean bizi da. Berriki, *majorensis* subespeziea deskribatu da —Fuerteventuran eta Lanzaroten bakarrik bizi da—.

Sai zuri heldua 55-65 cm luze da, eta 155-180 cm-ko hego-zabalera du, eta 1,5-2,2 kg-ko pisua. Gorputza, isatsa eta hegoak estaltzeko lumak zuriak ditu —isatsa kuneiformea da—, eta hegan egiteko lumak, berriz, beltzak. Aurpegi erdian ez du lumarik, eta aurpegiko eta eztarriko azala horiak ditu. Ez dago ageriko dimorfismo sexualik. Sai zuriaren mokoia sendoa da, kakotua, horia eta mutur ilunekoa. Ale heldugabeak arre ilunak dira, eta, 4 edo 5 urte dituztenean, helduaroko lumaje zuri-beltza hazten zaie pixkana-pixkana.

2.1.2. Banaketa eta populazioak

Sai zuriaren populazio ugaltzailea Mediterraneo inguruan bizi da batez ere; besteak beste, Espainian, Frantziako hegoaldean, Italian, Balkanetan eta Grezian. Afrikako iparralde eta ekialdeko, Ekialde Ertaineko eta Asiako erdialdeko mendietan ere bizi da. Negua pasatzeko lekuak Saharaz hegoaldeko Afrikan daude nagusiki. Europako populazioa 2.900-7.200 bikotek osatzen dute, baina kopuruak atzera egiteko joera dago nabarmen. Espainiako populazioa,

berriz, 1.452 eta 1.556 bikote artekoa da Estatuan egindako azken erroldaren arabera — 2008an egin zen—, eta Europako populazioaren oso ehuneko handia egiten du.

Espainiako populazioa Iberiar penintsula osoan bizi da, Madrilan, Murtzian, Ceutan eta Melillan izan ezik, eta dentsitaterik handienak Ebro ibaiaren haranean, Pirinioetan eta Iberiar mendikatean daude.

Euskal Autonomia Erkidegoan, berriz, espeziea oso sakabanatuta dago. Zati handi bat mendebaldean dago, eta beste bat, erdialdeko mendilerroetan: Aizkorri, Aralarren, Urkiolan, Gorbeian eta Garobel mendilerroan. Gainerako aleak sakabanatuta daude. Oro har, sai zuria Euskal Autonomia Erkidegoko mendialde gehienetan bizi da, eta dentsitaterik handienak Enkarterrin, Arabako mendebaldean eta Arabako mendialdean daude.

2.1.3. Habitata eta biologia

Sai zuria espezie nekrofagoa da, eta udarako migratzen du: martxo hasieran iristen da Iberiar penintsulara, eta irailean itzultzen da negua pasatzeko lekuetara; funtsean, Sahelera (Afrikara). Udazkeneko migrazioak uztailearen erdialdetik urriaren erdialdera arte irauten du, eta aleak abuztuaren bukaera eta irailaren hasiera aldean pasatzen dira gehienbat. Ohikoa da migratu aurretik sai zuria etzaleku komunaletan elkartzea: 400 ale baino gehiago ere biltzen dira. Udaberriko migrazioak, berriz, urtarrilaren bukaera aldetik maiatzaren bukaera aldera arte irauten du: helduak martxoaren erdialdean pasatzen dira gehienbat, eta heldugabeak, geroago.

Sai zuriak bakarrik egiten du habia, nolanahiko litologiako erlaitz eta pendizetan; oro har, 10 m-ko altitudetik gora. Habia egiteko lurralde eta lekuak apirilaren hasieran aukeratzen ditu, eta bi gurasoek laguntzen dute habia egiten. Sai zuriak berrerabili egiten du habia urtetik urtera. Apirilean erruten ditu arrautzak —bat eta hiru artean erruten ditu—, eta maiatzaren bukaera edo ekainaren erdialdera arte txitatzen ditu. Orduan, arrautzak eklosionatu egiten dira. Txitak abuztuaren amaiera edo irailaren hasiera aldera arte gelditzen dira habian, eta bi gurasoek zaintzen dituzte.

Sai zuria nolanahiko inguruneetan ibiltzen da, ez baita batere zorrotza umatze-pendizaren inguruko habitatak bete behar dituen baldintzak direla-eta, eta nahiko ondo jasaten du jendeztatzea. Habiatic 30-40 km-ra joan daiteke elikagai bila, baina, oro har, 12 km² baino gutxiagoko eremu batean egoten da, 1,5-4 km-ko inguruan.

Ugaltzeko parametroak direla eta, oro har, bikoteen ehuneko handi batek ekiten dio ugaltzeari. Estatuan, espeziearen ugalketaren arrakasta-tasa ugaltzeari ekin zion bikote bakoitzeko 0,88 txitakoa izan zen 2008an, eta ugalketa-tasa, bikoteko 0,65 txitakoa. Euskal Autonomia Erkidegoan, berriz, ugalketaren arrakasta-tasa 0,61 txitakoa izan zen urte berean, eta ugalketa-tasa, bikoteko 0,51 txitakoa. Arrakasta-tasak behera egin du nabarmen aurreko urteetakoan aldean.

Sai zuriaren elikaduraren oinarria animalia txikien eta aziendaren sarraskia da, eta leku irekietan bilatzen du. Ezinbestekoak ditu janleku eta zabortegeak, eta litekeena da halakoen inguruan ale asko eta asko (batez ere, gazteak eta ia helduak) elkartzea.

2.1.4. Populazioaren joera

Lehen, nahiko ohikoa zen sai zuria Iberiar penintsulan ibiltzea, baina atzerakada handia egin zuen oro har. Joan den mendearen erdialdetik aurrera, berriz, populazioak gora egin zuen: kalkuluen arabera, 600-1.000 bikote ugaltzaile zeuden orduan, eta, 1990ean, berriz, 1.400 inguru. 2000n, ordea, populazioak behera egin zuen berriro: 1.320-1.480 bikote zeuden, eta 326 bat lurraldetatik desagertu zen sai zuria; hau da, sai zuriak okupatutako lurraldeen kopurua % 25 jaitsi zen aurreko erroldetakoan aldean. Estatuan egindako azken erroldaren arabera —2008an egin zen—, azkenik, populazio ugaltzailea 1.452 eta 1.556 bikote artekoa zen.

Hazkundera izan da itxuraz, baina errolden estaldurak eta hala-holako kalitateak eragin nabarmena dute emaitzetan. Nolanahi ere, oro har, onartu beharra dago errolden estaldura handitu egin dela eta populazio ugaltzaileak behera egin duela argi eta garbi: Iberiar penintsularen hego-ekialdeko hainbat probintziatik desagertu da, nahiko egonkor iraun du mendialdeetan eta abeltzaintzan aritzen diren lurraldeetan, eta oso gainbehera nabarmena izan du nekazaritzan aritzen diren lurretan, hala nola Ebro ibaiaren haranean —kalkuluek diote okupatzen zituen lurraldeen % 70etik desagertu dela—. Ildo berean, % 45 inguruko beherakadak izan dira erdialdeko mendikateetan eta Andaluziako eta Kanarietako mendilerroetan.

Azkenik, aipatzekoa da populazioa egonkorra izan den lekuetan litekeena dela poliki-poliki atzera egiten hasi izana, hala nola Nafarroako Pirinioetan: hamar urtean, % 3ko beherakada izan da.

2.2. Euskal Autonomia Erkidegoko egoera

Euskal Autonomia Erkidegoko sai zurien populazioa 1985ean kalkulatu zen lehen aldiz: 20 bikote ziren. Pixka bat geroago, 1991n, Euskal Autonomia Erkidego osoko errolda egin zen, eta bikote ugaltzaileen kopuruak gora egin zuen: 29 eta 34 bitartean ziren. 2000n, Espainian egindako errolda baten esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoan 37-38 bikote ugaltzaile zeudela kalkulatu zen; hau da, bazirudien populazioak egonkor izateko joera zuela. Azkenik, 2008ko emaitzen arabera, 45-48 bikote zeuden, hiru lurraldeetako populazioak gora egin zuen adierazgarri; gainera, ez zen ikusi sai zuria lurralde batetik ere desagertu zenik. Bestalde, azken urteetan Euskadin egindako errolden kalitatea kontuan izanik, nahiko gauza segurua da bildutako datuek goranzko benetako joera adierazten dutela eta gorakada ez dela jazo landaren estaldura eta eraginkortasuna hobetzeagatik. 2008ko datuen arabera, Bizkaian eta Araban bikoteen % 40,4na zeuden, eta Gipuzkoan, berriz, % 19,2.

Azkenik, nabarmentzekoa da espezie honek etzaleku komunal bat duela gutxienez, Gardelegi hondakindegia inguruan, Arabako Lurralde Historikoan.

2.3. Mehatxuak eta atzera egiteko faktoreak

Heriotza- eta arrisku-faktore nagusiak pozoia erabilerarekin, janlekuak ixteagatik eskuragarri dagoen janari kantitatean izan den beherakadarekin, umatze-eremuetako trabekin

eta legez kontrako ehizarekin lotuta daude. Habitata eraldatu eta suntsitu izana, linea elektriko eta haize-sorgailuekin talka egitea eta nekazaritzako biozidekin intoxikatzea ere arrisku-faktoreak dira.

2.4. Legezko egoera

Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendak (6/1994 Legeak, 167/1996 Dekretuak eta 1997ko uztailaren 8ko Aginduak) espezie "kalteberatzat" du sai zuria, baita Arriskuan dauden Espezieen Espainiako Katalogoak (otsailaren 4ko Errege Dekretuak, Babes Araubide Bereziaren Pean dauden Basoko Espezieen Oinarrizko Zerrenda eta Arriskuan dauden Espezieen Espainiako Katalogoa garatzeko denak). Espainiako Hegaztien Liburu Gorriak, berriz, Iberiar penintsulako populazioa "arriskuan" dagoela dio, Natura Babesteko Nazioarteko Batasunaren irizpideekin bat. Munduan, aldiz, espeziea "arriskuan ez" dagoela jotzen da.

Azkenik, basoko fauna- eta flora-espezieen merkataritza arautzeko CITES Erregelamenduaren barruan dago sai zuria –3626/82/EEE eta 3646/83/EEE erregelamenduek arautzen dute—, C1 mailako espezieen artean, baita Europar Batasunaren Hegaztiei buruzko Direktibaren I. eranskinaren barnean (2009/147/EE Direktiban) eta Bernako Hitzarmenak zorrozki babesten dituen espezieen zerrendan ere.

3. "SAI ARREA" *Gyps fulvus* (Hablizl, 1783)

3.1. Espeziearen ezaugarriak

3.1.1. Deskripzioa

Espezie politipikoa da. Espezie nominala [*Gyps fulvus fulvus* (Hablizl, 1783)] Afrikako iparraldean, Europako hegoaldean, Asiako hego-mendebaldean (Sinairaino), Arabian, Pakistango hego-mendebaldean eta Asiako erdialdean (Tajikistandik Altairaino) bizi da.

Sai arrea hegazti harrapari nekrofagoa da. 1 m luze da gutxi gorabehera, eta hego-zabalera handia (2,60-2,80 m artekoa) du, eta 7 eta 11 kg arteko pisua. Nabarmentzekoa da lepo luze eta ia lumarik gabea, gorputz sendoa eta hanka motzak dituela. Burua eta lepoa luzeak eta lumarik gabeak ditu, eta helduek lumatxa motzak eta iduneko zuria izaten dituzte behealdean. Gazteek moko iluna dute, eta helduek, berriz, zuria. Azkenik, mantua arrea da oro har, eta hegan egiteko lumak beltzak dira hegoetan eta isatsean.

3.1.2. Banaketa eta populazioak

Afrikako iparraldeko, Europako hegoaldeko, Ekialde Hurbileko eta Asiako erdialdeko mendiguneetan bizi da sai arrea. Europan, Mediterraneo inguruan bizi da: Iberiar penintsulan, Balkanetan, Grezian eta Sardinian. 1990eko hamarkadaren erdialdean, populazioa 9.300-11.000 bikotekoa zen, eta joera ezberdina zen leku batzuetan eta besteetan: goranzkoa zen Frantzia eta Bulgarian, eta beheranzkoa, berriz, Portugalen, Italian, Grezian, Albanian, Ukrainan eta Turkian.

Iberiar penintsulan, mendikate guztietan bizi da. Pirinioen mendebaldean, Iberiar Mendikatean, Toledoko Mendietan eta Mendikate Betikoan, ale ugari daude; Iberiar penintsulako hego-ekialdean eta ekialdean, berriz, gutxiago. 2008ko kalkuluen arabera, populazioa 24.609 eta 25.541 bikote artekoa zen, eta 1.560 koloniatan banatuta zegoen. Badirudi sai arreak beharrezkoa duela habia egiteko leku egokiak eta janari ugari izatea, baina umatze-kolonietatik oso urrun ere badira sai bakartuak eta sai taldeak.

Euskal Autonomia Erkidegoan, hiru lurralde historikoetako mendialdeetan bizi da sai arrea, eta saitegi nagusiak Arabako mendebaldeko mendilerroetan daude: Valderejon, Sobrónen eta Garobel mendilerroan. Nolanahi ere, ia Euskal Autonomia Erkidego osoan ibiltzen eta elikatzen da sai arrea; kostaldean, gutxi.

3.1.3. Habitata eta biologia

Sai-populazioak sedentarioak dira, baina ale gazteak eta heldugabeak migratzaile partzialak dira: udazkenean, oso urrun joan daitezke, Iberiar penintsularen hegoalderantz, Afrikako iparralderantz eta are Sahararen hegoalderantz; itzuli, berriz, otsail eta ekain artean itzultzen dira. Neguko transhumantzia ere ikusi da: neguan, altitude behereagoetara jaisten da sai arrea, aziendari jarraituz, haranen hondoetarantz eta leku epelagoetarantz. Era berean, sakabanaketa-mugimendu handiak ikusi dira.

Sai arrea oso goiz hazten da txitak hazten: abendutik urtarrilera bitartean da araldia, eta errunaldia, berriz, abenduaren bukaera aldetik otsailaren bukaera aldera bitartean. Habiak haitzulo batean edo amilburu baten erlaitzean egiten ditu, eta berrerabili egiten ditu urtetik urtera. Monogamoa da, eta txitak kolonietan hazten ditu oro har; batzuetan, hainbat alek osatzen dituzte koloniak. Arrautza bakarra erruten du sai arreak. Bi gurasoek txitatzen dute, 53-55 egunez, eta txitak elikatu ere bi gurasoek egiten dute. 110-130 egun dituztela, hegan egiteko gauza dira txitak, eta 206-364 egun dituztela, beren kasa moldatzeko. Batez besteko ugalketa-tasa bikoteko 0,65-0,76 txitakoa da, eta sai arrea 4-5 urte dituenean ugaltzen da lehen aldiz.

Txitak hazteko, nahiko pendiz handiak aukeratzen ditu, harri mota guztietakoak —hala ere, nahiago du kareharria—, itsas mailatik 1.800 m-ko altitudera bitartean. Mendialdean eta estepan ibiltzen da, tenperatura askotako lurraldeetan; baso, hezegune eta itsasadarretan, berriz, ez. Oro har, abeltzaintza-sistema estentsibo handien eta janlekuen inguruan ibiltzen da, eta jendeztatzea jasaten du.

Sai arrea sarraskijalea da funtsean: batez ere, ugaztun handi eta ertainen ehun bigunak jaten ditu. Hala ere, oso noizean behin, animalia biziak harrapatzen ditu: geldia, ahul edo gaixo daudenak. Janari bila, etzalekuetatik eta umatze-kolonietatik oso urrun joateko gai da, eta ale batzuek udan migratu ere egiten dute.

3.1.4. Populazioaren joera

Espainiako populazioak atzerakada handia egin zuen 1950eko eta 1970eko hamarkaden artean eta, 1979an, behea jo zuen: orduan, populazio ugaltzailea 3.500 bat bikotek osatzen zutela kalkulatu zen. Ordutik, populazio ugaltzaileak onera egin du. 1989an, 7.529-8.074 bikote

ugaltzaile eta 22.945-24.535 ale zeudela kalkulatu zen. 1999an, berriz, 22.455 bikote ugaltzaile erroldatu ziren, 1.006 koloniatan, baita 157 bikote bakartu ere; guztira, populazioa 55.000 alekoa zela kalkulatu zen. Espainian egindako azken erroldaren arabera —2008an egin zen—, Estatuko populazioa 24.609 eta 25.541 bikote artekoa da.

Populazioaren aldetik zein lurraldeen aldetik, badirudi hazkundera etengabea dela. Nolanahi ere, populazioaren banaketa aldatu egiten ari da, eskuragarri dagoen janari kantitatearen aldaketan ondorioz seguru asko; izan ere, eskaintza trofikoak aldatu egin da, landa-inguruneak lana mekanizatzeagatik eta abereen gorpuak mendietatik kentzeagatik.

3.2. Euskal Autonomia Erkidegoko egoera

Azken urteotan, sai errearen populazio ugaltzailea nabarmen hazi da Euskadin. 1979an, espeziea Araban bakarrik ugaltzen zen erregulartasunez, eta 49 bikote ugaltzaile zeuden erregistratuta. Ordutik, joera goranzkoa izan da. 1980ko hamarkadaren hasiera aldean, sai arreak Bizkaia eta Gipuzkoa kolonizatu zituen. 1999an egindako kalkuluen arabera, berriz, populazio ugaltzailea 384 bikotekoa zen, 33 koloniatan banatuta, eta baziren bi bikote bakartu ere. Azkenik, 2008an, 822 bikote ugaltzaile zeuden erregistratuta, 63 koloniatan banatuta.

Espeziearen ugalketaren arrakasta-tasak, aldiz, behera egin du argi eta garbi: 1999an, bikoteko 0,75 txitakoa zen Euskal Autonomia Erkidegoan; 2008an, berriz, 0,51ekoa zen Bizkaian, eta 0,65ekoa Gipuzkoan —Arabak, 2007an, 0,58koa zen—. Azken urteotan, eskuragarri dagoen janari kantitatea jaitxi egin da, eta horrek kalte egin dio ugalketaren arrakasta-tasari, baita gizakiak habien inguruan egiten dituen jarduerak ere.

Ugalketaren arrakasta-tasak behera egin du, eta habian dauden txiten heriotza-tasak, gora. Bada, gainera, gora egin du hegan egiten hasiberriak direla hiltzen diren edo desnutrizio-arazoak direla-eta suspertze-zentroetan sartzen diren gazteen kopuruak ere.

3.3. Mehatxuak eta atzera egiteko faktoreak

Zalantzarik gabe, pozoien erabilerak (bereziki, estrikninarenak) eragin zuen XX. mendearen lehen erdialdean populazioan izandako beherakadarik handiena; berez, beste espezie batzuk akabatzeko erabiltzen zen estriknina, baina sai arreak haien gorpuak jaten zituen.

Gaur egun, berriz, haiek hartzen dira espezieak atzera egiteko arrazoi nagusitzat: pozoiek eragindako heriotzak, legez kontrako ehiza, linea elektrikoak eta haize-sorgailuak, eta eskuragarri dagoen janari kantitatearen beherakada, abeltzaintza-ohituren aldaketak eta abere hilak kudeatzeko osasun-arloko araudiaren aplikazio zorrotza direla medio.

3.4. Legezko egoera

Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendak (6/1994 Legeak, 167/1996 Dekretuak eta 1997ko uztailaren 8ko Aginduak) "interes bereziko" espezieetat du sai arrea, eta Babes Araubide Bereziaren Pean dauden Basoko Espezieen Zerrendak (otsailaren 4ko Errege Dekretuak, Babes Araubide Bereziaren Pean dauden Basoko Espezieen Oinarriko Zerrenda eta Arriskuan dauden Espezieen Espainiako Katalogoa garatzeko

denak) barnean hartzen du. Europan, "kaltebera" dela jotzen da, eta, munduan, "arriskuan ez" dagoela.

Azkenik, basoko fauna- eta flora-espezieen merkataritza arautzeko CITES Erregelamenduaren barruan dago sai arrea —3626/82/EEE eta 3646/83/EEE erregelamenduek arautzen dute—, C1 mailako espezieen artean, baita Europar Batasunaren Hegaztiei buruzko Direktibaren I. eranskinaren barnean (2009/147/EE Direktiban) eta Bernako Hitzarmenak zorrozki babesten dituen espezieen zerrendan ere.

II. ERANSKINA. Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen interes bereziko eremuak
Euskal Autonomia Erkidegoan



III. ERANSKINA. Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak elikatzeko babesguneak

